



# URTE
# AÑOS

**lanean pertsonen eskubideen alde**

ararteko

1989 - 2014



Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziapean dago

**Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:**

- web gunean
- posta elektronikoz eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)




Testua (ikusizkoa) : elektronikoa

**25** urte lanean pertsonen eskubideen alde : 1989-2014. – Vitoria-Gasteiz : Ararteko, 2014

Lineako baliabidea (61 or.)

Beharrezkoa da: Acrobat Reader

Sartzeko modua: World Wide Web

Lehen orritik hartutako izenburua

USB memorian ere eskuragarri (ISBN 978-84-89776-63-0)

1. Euskadi. Arartekoa  2. Historia

351.941(460.15)(091)

ARARTEKO
Multimedia: UTE MANIPULADOS - EPS
Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

ararteko

1 9 8 9 - 2 0 1 4

Aurkezpenak

URTE

AÑOS

**kopurutan** 8
**bere lan-arloetan jarduten** 10
**argitaratzen** 42
**gomendio orokorrak eta azterlanak egiten** 46
**lankidetzan** 50



Taula-grafikoen aurkibidea

1. taula-grafikoa. Aurrez aurreko kexak 8
2. taula-grafikoa. Telefono bidezko aholkularitza 8
3. taula-grafikoa. Kexa idatziak 8
4. taula-grafikoa. Ofiziozko jarduerak 9
5. taula-grafikoa. Kudeatutako kexen kopurua 9
6. taula-grafikoa. Jardueren kopurua 9


ararteko



Arartekorik ez balego, asmatu egin beharko litzateke. Horixe esan zidan nirekin elkarrizketatzea eskatu zuen emakume batek. Gai konplexu eta kontuzkoa azaldu zigun eta, azkenean, modu egokian bideratu ahal izan genuen. Egia da ombusmanaren suediar erakunde zaharra ez dagoela, ez horixe, herrialde demokratiko guztietan; baina egia da, orobat, gero eta gehiago hedatzen ari dela, eta herrialde askotan erakunde eragingarria bilakatu dela herritarren eskubideak eta administrazio ona bermatzeko. Herritarrak egunetik egunera hobeto jabetzen dira beren eskubideez eta, horrexegatik, gehiago eskatzen diete herri-administrazioei; bizi dugun garai honetan, ararteko, herriaren defentsa-erakunde edo ombudsmanok eginkizun garrantzitsua egiten ari gara arazoak konpontzen, herritarren eta administrazioen artean bitartekotza-lanak egiten, baita administrazioen jarduera, zerbitzu eta politika publikoen kalitatea hobetzen ere. Behar bezala jarduten eta lanean dabiltzan defentsa-erakundeen lana *soft power* delakoaren adibide ona da, zeina lagungarria baita demokraziaren kalitatea hobetzeko eta pertsonak herri-administrazioen aurrean ahalduntzeko.

Espainiako Konstituzio-egileak pertsonen eskubideak bereziki zaindu eta babestuko zituen Magna Carta bat idatzi nahi izan zuen, sortzen ari zen demokraziak atzean utzi behar baitzuen Francoren diktadura-erregimen izugarriko botere publikoen portaera askatasun-suntsitzailea. Euskal Estatutuaren egileak Konstituzioko autogobernurako printzipioa edo printzipio autonomikoa erabili zuen Ararteko erakundea sortzeko, eta Bernat Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan erabilitako hitz bat baliatu zuen.

Asko egin da 1989ko martxoaren 8an Juan San Martín pertsona talde txiki batekin Eusko Legebiltzarraren bulego batean lanean hasi zenetik. Arartekoan lan egin duten eta orain lanean ari garenok, gure zeregina edozein dela ere (guztiak beharrezkoak dira, erakundeak ezin hobeto jardun dezan), herritarrei laguntzeko jarreraz blaitzen gara, burutzen dugun lan motaren ondorioz une jakin batean pertsonekin enpatizatzen dugulako; zerbitzu publikoak (erakundearenak berarenak eta administrazio guztienak) eragingarritasun eta eraginkortasun printzipioen arabera jardun dezaten lagundu nahi dugulako; giza eskubideek, gauzatuko badira, habitat jakin bat behar dutela sentitzen dugulako, izan ere, bestela, murriztu edo ezereztatu egiten dira; barneratu egiten dugulako gizarte-justiziaren, gizarteratzearen, gizarte-ekitatearen, aukera-berdintasunaren, benetako berdintasun eragingarriaren eta abarren aldeko kausa. Arartekoaren buruzagitzan ni baino lehenago egon ziren pertsonek, hau da, aipatutako Juan San Martínek (1989-1995), Xabier Markiegik (1995-2000) eta Mertxe Agúndezek (jarduneko ararteko 2000tik 2005era), baita erakundean denboraldi haietan behar egin zuten pertsona guztiek ere lan aparta burutu zuten, era askotako iritzien arabera. Arartekoa lan hura pixkanaka sendotuz joan zen euskal gizartearen, euskal herritarren eta Euskadiko gizarte-erakunde, botere publiko, administrazio, hedabide eta abarren ikuspegitik.



Konstituzio Zuzenbideko irakasle izan nintzenean, ikasleei Arartekoaren eginkizunak azaltzen nizkien, eskubideak bermatzeko zeregin garrantzitsua azpimarratuz. 2004ko ekainean ararteko hautatu nindutenean, euskal autogobernurako erakunde honen ahalmenei ahalik eta zukurik gehiena ateratzea hartu nuen xede. Horretarako, hedapenik handiena eman behar zitzaion, albait gehien indartu bere itzala eta bere sinesgarritasuna, eragingarriagoa izan zedin; etengabe lan egin beharra zegoen erakundearen eraginkortasuna hobetzeko, gai publikoak kudeatzen ditugunok ahalik eta errentagarriena bihurtu behar baitugu xahutzen den euro bakoitza. Orobat, argi ikusi nuen aliantza estrategiko sendo eta iraunkorra landu behar genuela euskal gizarte-erakundeekin, zenbaitetan behar bezala baloratzen ez den gizarte-ondasun bikaina baitira. Aliantza hori behar genuen, jarduera eta politika publikoen akatsak eta gabeziak adieraz ziezazkiguten, gure antenak izan zitezen eta, azken batean, denon artean egunetik egunera eskubideak hobeto babesten lagundu genezan. Arartekoa bezalako erakunde batek -pertsonen eskubideak bermatzeko sortu zuten Eusko Legebiltzarraren goi mandatari gisa definitzen baita- nahitaez ahalegindu behar du Euskadin bizi diren pertsona guztiek, beren eskubideak baliatzeko orduan, egiaz zer egoera aurkitzen duten jakiteko informazio guztia eskuratzen.



Ikaragarri hazi da Arartekoa jardunean daraman 25 urteko aldian. Bere lehen urteko 585 kexa haiek ugarituz joan dira, 2013an euskal herritarrei artatzeko 12.507 jardueren kopurura iritsi arte (horietatik 9.610 kexak). Arartekoan behar egiten dugun taldeak lan-arloak zabaldu ditugu, 28ra hain zuzen, gure lanaren eragingarritasuna eta eraginkortasuna areagotzeko. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sortu dugu. Erantzuteko epeak hobetu ditugu, adierazle egokiak ezarriz. Kalitate-konpromiso zehatzak hartu ditugu geure gain, Zerbitzu Kartaren bitartez. Eskubideen, gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen gaineko Karta bat prestatu dugu. Funtsean aldatu ditugu gure argitalpenak, papera ezinbesteko gutxienekora murriztuz, diseinu erakargarriagoak eginez, eta erabilgarritasuna, formatu irekiak eta edukiak berrerabiltzea ahalbidetuz. Web berri bat sortu dugu, funtzionaltasuna, gardentasuna eta herritarrentzako zerbitzuak optimizatzea oinarritzat hartuta. Informazioa ematen ari gara Twitterren bitartez, herritarrekin elkarri eraginez jarduten ari gara gizarte-sareetan. Ekoskan ziurtagiria lortu dugu, ingurumenarekin egunero hartu ditugun jarduera-konpromisoengatik. Gure lanak zer-nolako eragina duen aztertu dugu gizarte-erakundeekin eta administrazioarekin. Plan estrategiko bat ere prestatu dugu; hortik jarduera-plan batzuk sortu dira, berraztertu eta ebaluatu daitezkeenak, eragingarritasuna eta eraginkortasuna hobetzeko. Orobat, helburu berarekin, lan-prozesuak birmoldatu ditugu, aplikazio berriak eskuratuta.



Saiatu gara gure herrialdeko gizarte-sareko lekurik ezkutuenetara iristen, baita ere gizarte-sare horren hormetatik kanpo dauden tokiak ezagutzen, halakoak egon badaudelako. Gure asmoa zen hitzik ez dutenei hitza ematea, egoera ezezagun edo ia ezezagunak argitara ateratzea, benetako berdintasun eragingarria izateko eskubide konstituzionala lortzen aurrera egitea, demokrazian sakontzea... Europako Batzordearen aintzatespena eta laguntza lortu ditugu, haren Justizia Zuzendaritzaren bitartez, Rainbow Has europar proiektua zuzentzeko. Proiektu horretan lanean ari dira EBko zortzi herrialdetako hamahiru erakunde, eskolaren eremuan joera homosexuala edo identitate transexuala duten adin txikikoen oinarrizko eskubideak behar bezala babesteko. Bestalde, euskal herri-administrazio eskudunek gure proposamenak aditzeko prest egotea lortu dugu, gizartea babesteko euskal sistema hobetze aldera.

Pozik gaude gure lanaren emaitzekin. Pozik gaude ehun kasutatik 86tan gure ebazpen-gomendioak onartu direlako, nahiz eta administrazioak horretara behartuta ez dauden eta, askotan, zuzendutako jarduerek legerik urratu ez duten, baizik eta, gure iritziz, legeriaren interpretazio murriztaile batean oinarrituta egon diren eta, horregatik, ez dituzten behar bezala bermatu herritarren eskubideak. Pozik gaude, baina aldi berean asko eskatzen diogu geure buruari, egunero tentsioari eta antolatutako lerro estrategikoei eutsi behar diegulako, gure eragingarritasuna eta eraginkortasuna are gehiago hobetu nahi baditugu.



Eskerrak emanez bukatu nahi dut. Eskerrik asko herritarrei, Ararteko erakundean uste ona izateagatik. Milesker Arartekoan lanean ari diren edo lan egin duten guztiei, bere lan onagatik eta pertsonekin nahiz giza eskubideekin hartu duten konpromisoagatik. Eskerrik asko gizarte-erakundeei, beren laguntzagatik. Esker mila administrazio eta erakunde publikoei, Arartekoa erakunde eragingarria bihurtzeagatik herritarrei zerbitzua eta arreta eskaintzeko orduan. Eskerrik asko legebiltzar talde guztiei, pertsonen eskubideak babesteko duen goi ordezkariari eusten jarraitzeagatik. Milesker hedabideei eta kazetariei, herritarrei Arartekoaren lanaren berri emateagatik.

Agur bero bat argitalpen digital honen irakurle orori. Ahalegin handiagoa egiten jarraitu nahi dugu, denon eskubideak hobeto bermatzeko asmoz.

**Iñigo Lamarca Iturbe**
ARARTEKOA





Gauzak, egintzak ez dira ustekabean gertatzen. Eta, oraingoan, ezta urtemugak ere.

Deskubritzea egokitu zaigun eta Morfeok gure amesgaiztorik triste eta ilunenean ere sekula marraztu ez zuen garai honetan, ez da ustekabekoa, ez dudarik izan, Ararteko erakundeak hogeita bost urteko adin gazte eta nagusia betetzea. Gaur egun dena eztabaidatu eta atzekoz aurrera jartzen da, eta badirudi giza eskubideetan zegoen uste ona ere galdu dela, gizon-emakumeen defentsa-dikea diren arren.

Historian barrena, Ombudsmanak eta, beraz, Artartekoak giza eskubideak defendatu ditu, oro har, eta egoera txarrenean daudenen eskubideak, bereziki. Ezinbesteko gotorlekua da gizarte- eta demokrazia-estatuan, astiro eta etengabe egiten duen limurtze-lanaren ikuspegitik. Gaur egun aurrera egiten dute eta inoiz baino beharrezkoagoak dira horrelako erakundeak. Beharrezkoak dira hitzik ez dutenen, herritarren hitza direlako, eta, antza denez, herritarrak botere-guneetatik sekula baino urrunago daudelako, nahiz eta botereek hartzen dituzten erabaki guztiek herritarrengan eragina izan. Beharrezkoak dira, herritar horiek pairatzen dituztelako ekonomiaren eta balioen oraingo lurrikararen ondorioak.

Hogeita bost urteok egindako lana egiaztatzen eta berresten dute. Euskadin orain inork ez du zalantzan jartzen eskubideak bermatzeko erakunde bat behar dela, herritarren erakundea, Arartekoa. Baina aurrera egiteko garaia ere bada.

Garai zailek egiten digute desafio gauzak berriztatzeko, bultzatzeko, oztopoei beldurrik izan gabe aurrera jarraitzeko, lan egiteko, besteren alde jarduteko eta hunkitzen gaituen hori eraikitzen jarraitzeko: hain zuzen, gizarte bidezkoagoa, berdintasun handiagokoa, denok bere baitan hartuko gaituena, alde batera utzita generoa, sinistea, adina, gizarte-maila. Gure aspaldiko ametsetan lortzeko modukoa zirudien gizarte hura. Hori lorgarri egiten jarraitu behar dugu orain.

Ararteko erakundearen hogeita bost urte horiek itxaropenerako atea eta gure herritarrekiko etengabeko konpromisoa izan behar dute eta, duda barik, dira.

ZORIONAK!!!!!

**Julia Hernández Valles**
ARARTEKOAREN ONDOKOA

# I

# 25 urte...

**Arartekoaren jardueraren ikuspegi orokorra abian jarri zenetik, bere oinarrizko tresnetako batzuen bitartez:**






1. taula-grafikoa.

### Aurrez aurreko kexen kopurua

| Urtea | |
|---|---|
| 1989* | – |
| 1990 | 243 |
| 1991 | 463 |
| 1992 | 436 |
| 1993 | 416 |
| 1994 | 423 |
| 1995 | 547 |
| 1996 | 1.452 |
| 1997 | 3.080 |
| 1998 | 3.088 |
| 1999 | 2.363 |
| 2000 | 3.002 |
| 2001 | 3.003 |
| 2002 | 3.572 |
| 2003 | 2.289 |
| 2004 | 2.503 |
| 2005 | 2.419 |
| 2006 | 2.585 |
| 2007 | 2.572 |
| 2008 | 2.601 |
| 2009 | 2.844 |
| 2010 | 3.158 |
| 2011 | 4.215 |
| 2012 | 7.001 |
| 2013 | 8.189 |
| **GUZTIRA** | **62.464** |

* 1989an datu hori ez zen erregistratu urteko estatistikan.




2. taula-grafikoa.

### Telefono bidezko aholkuen kopurua

| Urtea | |
|---|---|
| 2002* | – |
| 2003 | 1.259 |
| 2004 | 1.553 |
| 2005 | 1.646 |
| 2006 | 1.507 |
| 2007 | 1.589 |
| 2008 | 1.453 |
| 2009 | 1.377 |
| 2010 | 1.370 |
| 2011 | 1.616 |
| 2012 | 1.757 |
| 2013 | 2.746 |
| **GUZTIRA** | **17.873** |

* 2003. urtea baino lehen, datu hori ez zen estatistikan erregistratu.




3. taula-grafikoa.

### Kexa idatzien kopurua

| Urtea | |
|---|---|
| 1989 | 585 |
| 1990 | 1.159 |
| 1991 | 766 |
| 1992 | 781 |
| 1993 | 827 |
| 1994 | 747 |
| 1995 | 1.164 |
| 1996 | 1.674 |
| 1997 | 1.991 |
| 1998 | 2.660 |
| 1999 | 1.283 |
| 2000 | 1.231 |
| 2001 | 1.513 |
| 2002 | 1.253 |
| 2003 | 1.377 |
| 2004 | 1.531 |
| 2005 | 1.459 |
| 2006 | 1.678 |
| 2007 | 1.558 |
| 2008 | 1.696 |
| 2009 | 1.917 |
| 2010 | 1.859 |
| 2011 | 2.347 |
| 2012 | 2.943 |
| 2013 | 3.079 |
| **GUZTIRA** | **39.078** |



# ...kopurutan





**1.626** ofiziozko jarduerak

4. taula-grafikoa.

## Ofiziozko jardueren kopurua

| Urtea | |
|---|---|
| 1989 | 8 |
| 1990 | 6 |
| 1991 | 16 |
| 1992 | 8 |
| 1993 | 7 |
| 1994 | 20 |
| 1995 | 38 |
| 1996 | 86 |
| 1997 | 78 |
| 1998 | 52 |
| 1999 | 61 |
| 2000 | 46 |
| 2001 | 68 |
| 2002 | 91 |
| 2003 | 116 |
| 2004 | 33 |
| 2005 | 42 |
| 2006 | 64 |
| 2007 | 62 |
| 2008 | 389 |
| 2009 | 75 |
| 2010 | 58 |
| 2011 | 74 |
| 2012 | 69 |
| 2013 | 59 |
| **GUZTIRA** | **1.626** |



**103.168** kexak

5. taula-grafikoa.

## Kudeatutako kexen kopurua

| | |
|---|---|
| Aurrez aurreko kexak | 62.464 |
| Kexa idatziak | 39.078 |
| Ofiziozko espedienteak | 1.626 |
| **GUZTIRA** | **103.168** |






**123.310** jarduak

6. taula-grafikoa.

## Jardueren kopurua

| | |
|---|---|
| Kudeatutako kexak | 103.168 |
| Aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez (2003-2013) | 17.873 |
| Gomendio orokorrak (1990-2013) | 826 |
| Ikuskapen-bisitak, bilerak (2010. urteaz geroztik) | 1.350 |
| Argitalpenak | 93 |
| **GUZTIRA** | **123.310** |



# II

# 25 urte…

# ... bere lan-arloetan jarduten


II.1. Haur eta nerabeentzako bulegoa .... 12
II.2. Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola .... 14
II.3. Hezkuntza .... 15
II.4. Familiak .... 16
II.5. Ogasuna .... 17
II.6. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna .... 18
II.7. Gizarteratzea .... 19
II.8. Justizia .... 20
II.9. Ingurumena .... 21
II.10. Herri-lanak, garraioak eta azpiegiturak .... 22
II.11. Jarduera ekonomikoaren antolamendua .... 23
II.12. Herri-administrazioaren zerbitzuko langileak .... 24
II.13. Ezintasunen bat duten pertsonak .... 25
II.14. Gaixo kronikoak .... 26
II.15. Buruko gaixotasuna edo nahasmenduak dituzten pertsonak .... 27
II.16. Espetxeratuak .... 28
II.17. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk .... 29
II.18. Etorkinak .... 30
II.19. LGTBI pertsonak .... 31
II.20. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak .... 32
II.21. Talde terroristen biktimak .... 33
II.22. Animaliak babestea eta edukitzea .... 34
II.23. Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak .... 35
II.24. Osasuna .... 36
II.25. Segurtasuna .... 37
II.26. Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak eta datuak babestea .... 38
II.27. Lana eta gizarte segurantza .... 39
II.28. Hirigintza eta lurralde antolamendua .... 40
II.29. Etxebizitza .... 41



**1989. urtea oso adierazgarria izan zen euskal haur eta nerabeentzat.** Azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzarrak nazioarteko itun bat onartu zuen, gaur egun haur eta nerabeen eskubideen esparruan erreferentziazko itun nagusia dena: **Haurren eskubideei buruzko Hitzarmena**. Aurreko urteko martxoaren 8an, Juan San Martinek, Euskadiko lehen Arartekoak eta euskal herritarren eskubideen babesle nagusiak, bere kargua hartu zuen. Erakunde hau abian jarriz, hitzarmenean jasotako eskubideen defentsa eraginkorra bermatu zuen, eskubide horien balizko urratzeak salatzeko bide gisa eratu baitzen.

25 urte hauetan, Ararteko erakundea Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenean aldarrikatutako eskubideak sustatzen eta defendatzen aitzindari izan da, haurrak eskubideak dituzten subjektutzat hartzeko premisa partekatua (une haietan iraultzailea izan zen) oinarri hartuta, eta ez, kasurik onenetan, babestu beharreko objektu soiltzat hartuta. Alderdi askotan, haurren eskubideak adin-talde horrek une bakoitzean biztanleria guztiarekiko zuen ehunekoa baino (adin-talde horren ehunekoa txikituz joan da biztanleria osoan, lehen % 20 baino handiagoa bazen, egun % 17 ingurukoa da):

- Egindako 33 txosten berezietatik 8 berariaz haurren eta nerabeen errealitateari buruzkoak dira, eta beste 6 txosten berezitan, haurrei buruzko berariazko atalak daude, analisi globalago batzuen esparruaren baitan (%42,4). Txosten horietan, 275 gomendiok eskatzen dute haurren eta nerabeen bizi-baldintzak hobetzeko.
- Urte hauetan emandako 116 gomendio orokorretatik 27k (%23,3) ondorio zuzenak dituzte haurren eta nerabeen bizitzetan.
- Azterlanen %40k eta Arartekoak emandako beken %15ek haurrak nahasita zeuden egoerak ikertu dituzte, eskubideen ikuspuntutik.
- Dokumentatutako foroen eta jardunaldien erdiak eta udako ikastaroen heren batek haurren eta nerabeen errealitateak aztertu dituzte.

**Haurren eskubideak bere egiten gizarteak egindako aurrerapenaren isla leiala izan da Arartekoaren jarduera, eta era berean, nor bere egite horretan eragile ere izan da**

bere egiten gizarteak egindako aurrerapenaren isla leiala izan da Arartekoaren jarduera, eta era berean, nor bere egite horretan eragile ere izan da.

Datu askok adierazten dute erakunde honi asko kezkatu diotela haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen egoerak, premiak, eta laburbilduz, errespetuak. Datu adierazgarri gisa eta estatistika hotza oinarri hartuta, hau adieraz dezakegu: azken bi hamarkada eta erdian, erakunde honen haurrekin eta nerabeekin berariaz lotutako jardueren ehunekoak handiagoak izan direla beti

Txosten, azterlan eta gogoeta-gune horietako gaien ezaugarriak bereiztean familiei emandako babesa eta sostengua nabarmentzen dira (kostuen konpentsazioa, bateratzea, baterako ardura, familia anitzak eta/edo ahulak) haurren garapen osorako lehentasunezko eremu gisa; hezkuntzaren esparrua, haurren garapenerako eta sozializaziorako oinarrizko espazio gisa, eta etorkizuneko aukeretan desberdintasunak gainditzeko ingurune pribilegiatu gisa; eta hainbat faktoretatik eratorritako zaurgarritasun bereziaren babesa: familia babeslea ez egotea, bakarrik dauden adingabe atzerritarrengan

bereziki ondorioak dituelarik; osasun-arazoak; ezgaitasunak; mendekotasuna; afektibitate- eta sexu-joera...

Eskubideak sustatzeko zereginak ere garrantzi handia izan du erakundearen jardueraren baitan. Paper inprimatuan edo CDan, estatikoan edo interaktiboan, une bakoitzeko erabileren eta aukeren arabera, haurren eskubideei buruzko edo kasuistika jakinago batzuei buruzko (hala nola *ciberbullying*a edo IKTen erabilera arduratsua) hezkuntza-material didaktikoak egin dira eta haurren eta hezkuntza-eragileen artean banatu dira, eta oro har, oso harrera ona izan dute. Jarduera-esparru horren adierazlerik gertukoena **«Eskubideen uhartea»** da, 8 eta 11 urte bitarteko haurrentzako web-orri elkarreragilea. Web-orri horrek hizkuntza egoki bat erabiltzen du, hitzarmenean jasotako eskubideak hedatzen ditu, hausnarketa sustatzen du eta parte-hartzea ahalbideratzen du, jolasen, ipuinen eta proposamenen bidez.

Haurren eskubideen inguruko jarduera bizi hori 2010. urtean nabarmendu zen, arlo horretako une gogoangarri garrantzitsuenetakotzat har daitekeena gauzatu zenean: **Haur eta Nerabeentzako Bulegoa** abian jarri zen. Bulego horrek sistematizazio handiagoa, bulkada berria eta haurrentzako eta nerabeentzako berariazko jarduketen hedatzea eman du.

Esparru horretan, **Haur eta Nerabeen Kontseilua** ezarri zen, partaidetzako, kontsultako eta aholkularitzako organo bat. Organo hori nerabe talde batek osatzen du, eta nerabe horiek zuzenean helarazten dute beren iritzia erakunde honetara, eta hala, nahi zahar bat gorpuzten dute: haurren eta nerabeen entzunak izateko eta beraiei dagokien gaietan erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea gure elementu gidari gisa aplikatzea. Segur aski, gizarte gisa gehien landu behar dugun eskubideetako bat izango da hori.

Gaur egun, 2014. urtean eta 25 urteko etengabeko lanaren ondoren, gizartea sentsibilizatzen eta haurren eta nerabeen eskubideen ezagutza-mailan lortutako aurrerapenengatik pozteko arrazoiak ditugu. Hala ere, ezin dugu ahaztu aurrera egindako bide honetan atzera ere egin daitekeela, eta krisi ekonomikoa aitzakia hartuta, gastuari eusteko eta zerbitzuak eta prestazioak kentzeko neurriek eragin bereziki garrantzitsua izan dezaketela gure haurrengan eta nerabeengan, bere eskubideak arriskuan ikus baititzakete, eta neurri handiagoan, berdintasunaren printzipioa. Horrek, zalantzarik gabe, etorkizunean izango garen gizartea baldintzatuko du. Esan dugun bezala, *«kontua da ahulena lehenestea,* ***etorkizunean inbertitzea, gizarte-justizia egitea****»* ■

# 2. Hizkuntz eskubideak, kultura eta kirola



**Herritarrek herri-administrazioarekin dituzten harremanetan euskara nahiz gaztelania** erabiltzeko eskubidea dute Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruan, bai eta beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea ere. Esparru horretan, Arartekoaren zeregina ez da bakarrik herritarren eta botere publikoen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzea. Hobeto esanda, hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko aukera zentzuz askea izatea lortzea da, eta horrek berekin dakar kostuek edo zentzuzkoa denaren neurria gainditzen duten deserosotasunek ez kentzea hizkuntza horietako bat aukeratzeko asmoa. Eta nahiz eta 25 urte hauetan egoera nabarmen hobetu, urterik urte, herritarren kexak hiru esparru jakinetan bildu dira, eskubide hori ukatu izanagatik: Justizia, Barne Saila eta Osasuna. Herri-administrazioekin harremanak izateko garaian euskara erabiltzeak berekin dakartzan denbora, berehalakotasun eta eragozpen baldintzetan kostua aztertzeak ondorio hau ateratzera eraman gaitu: aipatu esparruetan, hizkuntza ofizial bat edo bestea erabiltzea **herritarrentzat aukera aske bat izatetik oso urrun dago**.

Egia bada ere pixkanaka aplikatzen ari den eskubide bat dela, ezin da ulertu denboraren joanagatik soilik gauzak bere kabuz aldatuko direnaren zentzuan. Ezinbestekoa da esku hartzea gauzak aldatu ahal izateko, esku-hartze horrek emandako zerbitzua praktikan hobetzen ari den ebaluatzea, eta horrela ez bada, ahal den neurrian zuzentzea. Erakunde honen ahaleginek helburu horiek dituzte, aurrerapena egiazkoa izateko beharrezko borondatea izatea erraztuko duten adostasunak sortzeko lan eginez, arduradun politikoengandik hasiz, zerbitzu publikoetako langileez ahaztu gabe, ez eta herritarrak ere.

Beste lan-esparru bat kultura-azpiegituren kudeaketari buruzkoa da, ez gara mugatzen legezkotasuna kontrolatzera, baizik eta partaidetzako prozesuak sustatzen ditugu. Partaidetza prozesuen balioa ez da emaitzaren inguruko gizarte-kohesioko baldintzetan soilik neurtzen, baizik eta baita herritarren kontzeptu heldu eta arduratsu batean sakontzea ere, ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren eta kultura-ondarearen babesaren ordenan zuzenean eragina duten gaiei buruzko hausnarketa partekatuaren bidez.

Halaber, kirolaren praktikarekin lotuta, pertsonen eskubideak defendatzeaz ere arduratzen gara. Bere gizarte-garrantziagatik azpimarratu behar da eskolako kirolarekin lotuta egindako lana, haurrek eta nerabeek egindako kirola beti eta uneoro hezkuntza-parametroen mendean garatzen dela bermatzeko, **Arartekoaren urriaren 27ko 6/2011 gomendio orokorrak** adierazten duen bezala. Bestalde, azpimarratu dugu beharrezkoa dela genero-ikuspuntu bat aintzat hartzea kirolaren esparruan, oso maskulinizatua baitago. Horrela adierazi dugu antolaketa-arazoak aztertu ditugunean. Antolaketa-arazo horiek, batzuetan, eragiten dute **emakumeei eta neskei zuzendutako kirol-eskaintza mugatuagoa izatea gizonezkoek dutena baino**. Laburbilduz, botere publikoek nahiz gizarte osoak zenbait esparrutan gizonen eta emakumeen presentzian oreka ez izatea neutroa ez dela jakitean datza, baizik eta gizarteak esleitzen dizkien itxaropenetan eta roletan dagoen sexismoaren ondorio dela jakitean, eta horrek pertsonen arteko berdintasun eraginkorra oztopatzen duela ■

**Azpimarratu dugu beharrezkoa dela genero-ikuspuntu bat aintzat hartzea kirolaren esparruan, oso maskulinizatua baitago**





**Zuzentasuna, aukera-berdintasunaren berme gisa**, hezkuntza-inklusioa eta bereizkeria-eza eta balioak praktikan jartzea dira hezkuntzaren esparruan politika publikoetan nagusi diren eta politika horiek inspiratu behar dituzten printzipioetako batzuk, besteak beste.

Erakundearen 25 urteko jardueran, Arartekoak, printzipio horiei buruzko kezkak mugituta, hainbat txosten berezi egin ditu hezkuntza-premia bereziei, bizikidetzari eta ikastetxeetako gatazkei eman beharreko erantzunari buruz eta adingabeei transmititu beharreko balioei buruz. Balio horien jarraipen berezia egin dugu. Puntu horretan, bereziki aipatu behar da 2011. urtean argitaratu zen ***Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*** izeneko txostenak berekin ekarri zuen bilketa- eta sintesi-lanak.

Aztertutako gaien artean nabarmentzen dira, besteak beste, zero eta hiru urte arteko haurrei eman beharreko arretari buruzkoa, hainbat ikuspuntutatik aztertu dena, eta haur-eskolen finantziazioa, eskola-mapa berriaren ildotik ikasleak onartzeko irizpideak eta familien eta profesionalen arduren bateratzea. Halaber, gai hauen inguruko hausnarketa ere egin da: ikasleak zigortzeko araubidea, hezkuntza-kontzertuetatik eratorritako betebeharrak gehiago kontrolatzeko beharra, ikastetxeetako kirol-ekipamenduetako gutxieneko segurtasun-neurriak edo guraso bananduek administrazioak bere eskuetan dituen bere seme-alabei buruz dituen datuen inguruan jaso beharreko informazioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.



**Bereziki aipatu behar da 2011. urtean argitaratu zen *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* izeneko txostenak berekin ekarri zuen bilketa- eta sintesi-lanak**

Urte hauetan, erakundeak deitu diren ikerketa-beken emaitza diren beste lan batzuk argitaratzeko aukera ere izan du. Hizkuntza-eskubideei eta hezkuntzari buruzko lanaren kasua izan da, ***Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*** izenburuarekin argitaratu zena, bai eta Araban ikasle etorkinen irakaskuntzaren inguruko azterlanarena ere.

Eusko Jaurlaritzari egindako urteko txostenak gomendio orokorrak egiteko esparru gisa erabili dira. Gomendio orokor horiek, bai hezkuntza-agenda politikoan garrantzitsua izateagatik edo horiei buruzko kexa ugari aurkeztu izanagatik, erakundeak aztertu behar direla iritzi dugun gaiei buruzkoak izan dira.

Era berean, hainbat material didaktiko egin eta hedatu dira, eta Europar Erkidegoko Justizia Zuzendaritza Nagusiak sustatutako proiektuetan parte hartu da (**Rainbow** eta **Rainbow Has** proiektuak, hezkuntzaren esparruan afektibitate- eta sexu-aniztasunerako eskubideei buruzkoak).

25 urteko ibilbidea betetzeko une honetan, hau esan dezakegu: hezkuntzaren esparruan, politika publikoen helburu estrategikoen artean nabarmendu egiten direla erakunde honentzat eskubideak bermatzeko ikuspuntutik bereziki kezkagarriak izan direnak. Egiaz, jada onartuta dauden proiektu, gida eta plan estrategiko garrantzitsuak ditugu, eta erakunde honek gure eskolen eta ikastetxeen errealitate praktikoan eraginkortasunez abian jar daitezen lan egingo du ■



**Botere publikoek bereziki babestu behar dute familia**, pertsonen garapen osorako euskarri materiala eta afektuzko euskarria izateko lehentasunezko funtzioa baitu, bai eta adingabeen, adinekoen eta, gaixotasunagatik edo mendekotasunagatik, premia bereziko egoeran dauden pertsonen arretan betetzen duen zeregin kuantitatiboagatik eta kualitatiboagatik ere. Arlo horretan, Ararteko erakundearen lana dauden familia-ereduen aniztasuna aintzat hartuta familiak laguntzeko helburua duten politika publikoak sustatzeko eta indartzeko bulkada ematean datza.

25 urte hauetan, 12 gomendio orokor eman dira familiekin lotuta, eta udako bi ikastaro antolatu dira: ***Familia berriak eta berdintasun printzipioa: eztabaida irekia***, 2005. urtean, eta ***Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean***, 2010. urtean. 2014. urtean, Euskadin familiak babesteko politikei buruzko txosten berezi bat argitaratuko da. Txosten horretan, euskal familien eskaera nagusiak aztertzen dira, eta erakundeak behar horiei zer-nolako erantzuna ematen dien, Europako ingurunearekin alderatutako testuinguru batean.

Ararteko erakundeak sarritan aztertu ditu kolektibo horrekin zerikusia duten gaiak, eta horien artean hauek nabarmen ditzakegu: Lan- eta familia-bizitza bateratzeari, seme-alaben zainketaren inguruko gurasoen baterako arduraren, eta seme-alabak dituzten bikoteen banaketetatik eratorritako zailtasunei buruzko gaiak; adopzioaren esparruko arazoak; familien etxebizitzarako sarbidea; familia-bizikidetzako ereduetan aldaketak; familia klase desberdinen arteko berdintasuna; seme-alabak dituzten familien beharrak, batez ere familia ugarienak eta guraso bakarreko familienak, eta familia horiei laguntzeko inbertsio publiko urria. Horren bidez, herritarrek behin eta berriz egindako eskaerei erantzun bat eman nahi izan zaie, eta batzuetan, gizarte-eztabaida sortu da eta erakundeek errealitate berriei gehiago egokitzen diren erantzunak ematea sustatu da, bateratzearentzako laguntzen esparruan gertatzen den bezala, guraso bakarreko familia berrien erabateko berdintasunari dagokionez, edo familien elkarguneak arautzeari eta hobetzeari dagokionez.

Egiaztatu dugu Euskadin, gaur egun, seme-alabak izatea, haztea, zaintzea eta heztea zaila dela, eta familiek ez dituztela behar adina laguntza, horren funtsezkoa den giza eta gizarte-funtzio bat betetzeko. Euskal botere publikoek inbertsio publikoa sustatu behar dute familia horietan, eta balio-aldaketa bat sustatu behar dute, lan- eta familia-bizitza bateratzea erraztea helburu izango duena. Halaber, beharrezkoa da, hainbat egoeragatik, familiarik ahulenak behar duten arreta bereziak esparru koherente bat izatea, xede horretarako neurri publikoak nahikoak, koordinatuak eta eraginkorrak izan daitezen ■

**Arlo horretan, Ararteko erakundearen lana familiak laguntzeko helburua duten politika publikoak sustatzeko eta indartzeko bulkada ematean datza**



**Herritarrok gastu publikoari eusten lagundu behar dugu**, bakoitzak gure ekonomia-ahalen (kontribuzio-ahala) arabera, eta bidezko sistema baten arabera, hain zuzen, berdintasun- eta gehikortasun-printzipioak oinarri dituenaren arabera, **Espainiako Konstituzioaren 31. artikuluak** ezartzen duen bezala.

Arlo horren bidez, Arartekoaren erakundeak herritarren eta zerga-administrazioen artean sortzen diren gatazken eta desadostasunen inguruan aholkuak emateko eta gatazka eta desadostasun horiek konpontzeko bide eskuragarri eta merke bat eskaintzen du.

horrek eragiten duela pertsona zergadunek administrazioek eskainitako aitorpenak eratzeko zerbitzuak erabiltzea, zerbitzu horiek ongi egiteaz erabat fidatuz eta izan ditzaketen behin-behineko akatsei erreparatu gabe.

Krisi ekonomiko latza igarotzen ari gara, eta krisi horrek familiek eskura zituzten baliabideetan narriadura nabarmena eragin du, eta narriadura horrek eragina izan du zerga-bilketan.

Egoera hori dela eta, beharrezkoa da aparteko neurriak hartzea, pertsona askok pairatzen dituzten zailtasun larriak arintzeko. Hala,



## Ararteko erakundeak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren foru- eta udal-araudia aldatzen lagundu du

25 urte hauetan, 18 gomendio orokor eman dira Ogasunaren arloan, eta gomendio horietan, udal- eta foru-zergen ordainketari eragiten dieten berariazko arazoak aztertu dira. Indarrean egoteagatik, hauek azpimarratuko ditugu: ***«Herritarrei eman beharreko informazioa eta beren zerga-betebeharrak egoki betetzea»*** eta ***«Zerga-kudeaketarako formula modernoak eta berezitasunak araudien bidez jaso eta onartzea»***. Gomendio orokor horietan, zerga-jakinarazpenetan oso terminologia konplexua erabiltzen dela, prozeduren eta zerga-araudi beraren zailtasuna –batzuetan, zailtasun hori saihesteko modukoa da- azpimarratzen dira, eta zailtasun

Ararteko erakundeak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren foru- eta udal-araudia aldatzen lagundu du, beren ohiko etxebizitzaren hipoteka-betearazpena pairatu duten pertsonek zerga horren kuota ordain ez dezaten. Era berean, ofiziozko jarduketa bat izapidetu zen hiru foru-aldundiekin, hipoteka-betearazpen horretatik erator daitekeen behin-behineko ondare-irabazia PFEZan zergatik salbuetsita zegoela adierazi zezaten. Horri esker, salbuespen hori zerga horren araudian aintzat hartu zen, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin Bizkaian, eta 2012ko urtarrilaren 1etik aurreko ondoreekin Gipuzkoan eta Araban ■

# 6. Emakumeen berdintasuna eta osotasuna



**Arlo horretan, Arartekoaren esku-hartzeak esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna** sustatzeko helburua du, bai eta euskal herri-administrazioek berdintasunerako eta sexu-arrazoiagatik ez bereizteko eskubidea erabat aplikatzen dutela zaintzekoa ere, ikuspuntu formal batetik nahiz material batetik. Berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko helburua duten ekintza positiboak eskatzeak gero eta garrantzia handiagoa hartu du.

25 urte hauetan, 5 gomendio orokor eman dira emakumeen berdintasunarekin lotuta, azterlan bat egin da **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako euskal Legeak** alardeetan izandako eraginari buruz, eta txosten berezi bat argitaratu da ***Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari*** buruz. Horrez gainera, aldizka ikuskatze-bisitak egin dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera emateko hainbat baliabidetara.

Nahiz eta esparru horietako askotan desberdintasunak egiturazko gizarte-arazo gisa bere horretan jarraitzen duela aditzera ematen duten oinarrizko arazoak egon, beharrezkoa da baita aitortzea gizarteak eta euskal erakundeek egindako aurrerapenak. Aurrerapen horiek, oro har, beren kontzientzia eta berdintasunaren aldeko esfortzuak nabarmen areagotu dituzte. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako aipatu Legea aldarrikatzea eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erakundeen arteko lana sustatzea bi une gogoangarri dira, eta erakundeen artean adostasun handia eta bidezko eta berdintasunezko gizarte baten aldeko apustu finkoa dagoela adierazten dute.

Egiaztatu dugu, gaur egun, Euskadin desberdintasuna oraindik agerikoa dela hainbat esparrutan, bereziki eta modu dramatikoan eta gaitzesgarrian, emakumeen aurkako indarkeriaren bidez: prozesu judizialak, etxebizitzarako sarbidea eta lanerako sarbidea oraindik zailtasun handiak dira indarkeria mota hori pairatzen duten emakumeentzat. Halaber, kulturan, kirolean eta festetan ere

**Arartekoak lan handia egin du emakumeen erabateko berdintasuna sustatzeko**

Denbora honetan, Arartekoak lan handia egin du emakumeen erabateko berdintasuna sustatzeko, modu azpimarragarrian honako esparru hauetan: norberaren bizitzaren, familiaren eta lanaren bateratzea, seme-alaben eta kargura dauden pertsonen zainketan baterako ardura; gizarte- eta kultura-bizitzan emakumeen berdintasunezko partaidetza, oro har, festetan, eta batez ere, alardeetan; genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei babesteko erakundeen erantzun egokia.

emakumeak desberdintzeko eta ikusezin bihurtzeko adierazpenak hautatzen ditugu, eta adierazpen horiek ez datoz bat lortu nahi dugun berdintasunezko gizartearekin, eta demokraziaren aurka doazen balioak bere horretan jarraitzen dutela adierazten dute. Krisi-egoerak eta pobrezia feminizatzeko fenomenoak bereziki kaltetu ditu emakumeak. Pobreziaren feminizazioak emakume behartsuen kargura dauden pertsona asko eramaten ditu herrestan, eta genero-ikuspuntua aplikatzen duten politikek fenomeno horren aurrean neurriak hartu behar dituzte ■

# 7. Gizarteratzea



**Krisialdiko urte hauetan, agerian geratu da, eta horrez gainera, «gehiengoak» aipatzen duen gai bat** da gure egungo ekonomia- eta gizarte-sistemak herritarren arteko desberdintasunak larriagotzen dituela estatu beraren barruan, bai eta zenbait estaturen arteko herritarren artean ere, eta desberdintasunen arraila hori handituz doala egunetik egunera.

Arartekoak ohartarazi du beharrezkoa dela esku hartzea, gero eta pertsona gehiagori eragiten dioten, eta gizartean, ekonomian eta kulturan parte hartzea zailtzen duten eta, sarritan, eragozten duten bazterketa-prozesuak geldiarazteko. Hainbat txosten egin ditugu, hala nola gizarte-bazterketako egoera larrian edo etxerik gabe dauden pertsonen egoerari buruzkoa eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen edo gizarte-arloko esku-hartzearen hirugarren sektorearen egoera aztertzen duen txostena.

**Arartekoak ohartarazi du beharrezkoa dela esku hartzea, gero eta pertsona gehiagori eragiten dioten bazterketa-prozesuak geldiarazteko**

Herri-administrazioei igorri dizkiegun gomendioen artean, hauek azpimarra ditzakegu: erroldan izena emateko betebeharrari, zaurgarritasun bereziko egoeran dauden taldeentzat zerbitzuak sortzen erakundeek behar duten beharrezko lidergoari eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioen araudian bizikidetza-unitate ekonomiko independentea nola hartu berriz aztertzeko beharrari buruzkoak. Halaber, autonomia-erkidegoko gizarte-prestazioen titularrak diren pertsonei langabeziaren diru-laguntza eteteak eragindako egoeren aurrean ere gure iritzia eman dugu.

Krisiaren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioen kudeaketa-eredua aldatzearen ondorioz, bazterketa-prozesuak bizkortu egin dira, eta horrek berekin ekarri du **Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua)** funtzionamenduaren lehen urteetan kexa kopurua izugarri igotzea. Beharrik oinarrizkoenei aurre egiteko diru-sarrerarik ez duten pertsonak dira, eta herri-administrazioei esku hartzeko eskatzen diete, beren egoera are gehiago narria ez dadin. Arartekoak bere balioa aitortu dio diru-sarrerak bermatzeko errentaren euskal sistemari, enplegua ez izateak eta beste ahulezia-egoera batzuek eragindako diru-sarreren gabezia arintzeko funtsezko tresna baita. Halaber, gomendatu du Lanbideren erabakiek administrazio-prozeduraren bermeak bete behar dituztela.

Horrez gainera, badira urteak Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia-erkidegoko beharrak artatzen dituen eta, batez ere, adinagatik, mendekotasun-egoeragatik, muga funtzionalak izateagatik ahulezia-egoera dauden edo atzerritarrak izateagatik edo kultura-gutxiengo batekoak izateagatik edo baldintza duinetan enplegua eskuratzeko zailtasunak izateagatik bazterketa-egoeran dauden pertsonak artatzen dituen gizarte-zerbitzuen sistema bat garatu du. Arartekoak gogora ekarri du zerbitzu eta prestazio horiek garrantzi handia dutela pertsonen gizarteratzerako eta desberdintasun-tasei eusteko. Gizarteratzea lortzeko, hainbat motatako politika publikoak jarri behar dira abian, bai kutsu humanitariokoak, bai lan-prestakuntzakoak eta -aktibaziokoak, nahiz enpresa-ekintzailetzakoak. Politika horiek pertsona guztiei duintasunez bizitzeko aukera eman behar diete, bai beren nahiak bete ahal izateko aukera ere ■

# 8. Justizia



**Justiziako Administrazioak ezinbesteko zeregina betetzen du, botere publiko bat den aldetik**, pertsona guztien askatasuna eta berdintasuna erreealak bihurtzen dituzten baldintzak sustatzen. Hori dela eta, herritarrek beren eskubideak eta interesak epaitegien aurrean baliarazi behar dituztenean, hainbat itxaropen dituzte beren baitan, besteak beste, zer tratu jasoko duten, amaierako ebazpenak zer-nolako edukia izango duen, ebazpena hartzen den arte zenbat denbora igaroko den edo eraginkortasunez bete arte zenbat denbora igaroko den eta bere hizkuntza adierazteko zer aukera izango dituen. Arlo horretan Arartekora iristen diren kexak, oro har, itxaropen horiek zapuztu egiten direlako gertatzen dira, eta 25 urte hauetan, maila horietan guztietan esku hartu dugu, nahiz eta independentzia judizialari zor diogun errespetuaren ondoriozko muga handi bat izan dugun: gure gainbegiratze-eskumenek ez dute eraginik epaileek eta epaitegiek beren funtzioak betetzean hartzen dituzten erabakietan.

**Esparru horretan jasotako kexa askok babes-gabeziako edo informazio-gabeziako egoerak egon direla adierazten dute**

Lan jurisdikzional hori egiteko, gure epaitegiek baliabide materialak eta giza baliabideak behar dituzte, eta baliabide horietaz hornitzea euskal botere publikoen ardura da. Euskal botere publikoen aurrean jardun dugu, bai ofizioz bai herritarrek eskatuta, baliabide horien hornidura eta kudeaketa egokia izan dadin hainbat esparru anitzetan, hala nola epaitegien informatizazioan, instalazioen eta lokalen egokitzapenean, langile kopuru nahikoa izatean edo erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak errespetatzean.

Esparru horretan jasotako kexa askok, bestalde, babes-gabeziako edo informazio-gabeziako egoerak egon direla adierazten dute. Horretarako, zer faktorek eragiten dituzten identifikatzen saiatu gara, epaitegietan kudeaketa informalen bidez arintzen laguntzeko. Ezin izango genituen jarduera mota horiek aurrera eraman jasotako laguntza izan ez bagenu, eta bidezkoa da aitortzea laguntza hori eman digutela epaileek, idazkariek eta epaitegietako langileek, bai eta Justizia Administrazioari laguntzen dioten profesional taldeek eta zerbitzuek ere. Kudeaketa mota horiek honela sailka daitezke:

- Izapidetzean izandako atzerapenei buruzkoa edo, bai emandako informazioan, bai pertsona interesdunei espediente judizial batean emandako arretan, identifikatu ditugun disfuntzioei edo hobe daitezkeen alderdiei buruzkoak.
- Epaitegira kexagileen zenbait egoera pertsonal helaraztean dautzanak, hainbat arrazoirengatik aintzat hartu ez ziren egoerak, nahiz eta oso garrantzitsuak izan, ezarritako zigorrak edo neurriak egikaritzeko ondoreetarako: funtsean, gizarteratzeko eta lanerako prozesuak, eta buruko osasuneko arazo larriak.
- Ebazpen judizialen egikaritzeei buruzkoak eta ondare-edukia dutenak, banantze- eta dibortzio-prozeduretan seme-alaben inguruan emandakoak, besteak beste.

Azkenik, 25 urte hauetan Fiskaltzak Arartekoarekin elkarlanean azkar eta eraginkortasunez jardun dela eskertu nahi dugu. Lankidetza horrek oso ondorio positiboak izan ditu elkarrekin, bakoitzak bere eskumenen esparruan, egiten dugun lanaren eraginkortasunean, eskubideen bermeari dagokionez ■





**Ingurumena zeharkako kezka bat da Arartekoan**. Natura-ingurumena eta giza osasunaren babesa modu jasangarrian zaintzeko beharra dira gure oinarriak esparru honetan. Arlo horretan, nagusi izan dira kexetan, herritarrek beren kezka adierazi dute beren etxeek batez ere kutsadura akustikoagatik edo kutsadura atmosferikoagatik eratorrita pairatzen dituzten kalteengatik. Bestalde, natura-ingurumena defendatzeko herritarren elkarteak gure erreferentzia izan dira, euskal botere publikoek hainbat kontutan izandako jarduketa aztertzeko, hala nola giza jardueraren ingurumen-kontrolean eta urte hauetan jarraitutako gizarte-garapeneko ereduak ingurumenean izandako inpaktua.

Hainbat gairi buruzko ebazpenak, gomendioak edo iradokizunak egiten esku hartu dugu, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan haustura hidraulikoa edo *fracking*ari buruz, lindanoagatik kutsadura-gertakariengatik kontsumorako uren kalitateari buruz eta ingurune industrializatuetan, besteak beste, petrolio-birfindegien inguruan, bizi diren pertsonek osasunean pairatzen duten inpaktuari buruz. Halaber, urte hauetan, beste hainbat esparrutan ere esku hartu dugu, hala nola eredu energetikoan, ingurumenerako duen inpaktuan eta energia-iturri berriztagarrien sustapenean.



## 25 urte hauetan, ingurumenarekin zerikusia duten 15 gomendio orokor baino gehiago egin dira

25 urte hauetan, ingurumenarekin zerikusia duten 15 gomendio orokor baino gehiago egin dira, eta horien artean nabarmentzen dira jolas- eta industria-jardueretako eta aisialdirako lokaletako zarataren arazoari buruzkoak. Informaziorako eta ingurumen-partaidetzarako eskubideari buruz ere egin ditugu beste gomendio orokor batzuk, beste hainbat gai garrantzitsuren artean.

Ingurumen arloko helburu estrategikoetako bat da **Aarhuseko Hitzarmenetik** eratorritako konpromisoen aplikazioa aztertzea, ingurumen-demokraziaren hiru zutabeak bermatzeko: informaziorako sarbidea, partaidetza eta ingurumen-justizia. 25 urte hauetan, azpimarratu dugu herri-administrazioek partaidetza-mekanismoak eman behar dituztela, ingurumenetik eratorritako gatazkak kudeatzeko, eta herritarrek eta elkarte interesdunek ordezkaritza izan behar dutela mekanismo horietan ■

# 10. Herri-lanak, garraioak eta azpiegiturak



**Gure autonomia-erkidegoan herri-azpiegituren obrak egiteak eta garraio-zerbitzuak emateak berekin ekarri du Arartekoak**, erakunde gisa jardun duen 25 urtetan, esparru horretan jarduketa ugari egin behar izatea. Aurkeztu diren erreklamazioek sarritan zalantzan jarri dituzte azpiegitura horiek eraikitzeko aukera, ingurumenean duten eragina eta herritarren parte hartzeko prozesuak. Garraioaren kasuan, zerbitzu hori erabiltzaileentzat mugarik gabe emateari buruzkoak izan dira batez ere gure esku-hartzeak.

25 urte hauetan, 8 gomendio orokor eman dira garraioarekin eta herri-lanekin lotuta. **Garraio publikoaren irisgarritasuna** izan da esparru azpimarragarrienetako bat, eta 2011. urtean esparru horri buruzko txosten berezi bat aurkeztu zitzaion Eusko Legebiltzarrari.

beharrezkoa dela tarifa-sisteman bateratuta dauden baldintza batzuk ezartzea, garraio-sistema publiko integratu bat lortzen lagunduko dutenak, bai eta txartel bakarra ezartzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko garraiobide guztietan erabili ahal izango dena. Azpiegituren eta herri-lanen esparruan, eskatu dugu zuzenbide pribatuari atxikitako enpresen bidez kudeatzen diren zerbitzu publikoen erabiltzaileen eskubideen kudeaketa hobetzeko, gardentasun-irizpideen eta administrazio egokiaren bidez.

Garraio publikoari buruz, oraindik azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela garraio egokituaren eskaintza hobetzea. Herri-administrazio eskudunek beren indarrak batu behar dituzte, mugikortasun urritua duten pertsonentzako irtenbideetan lanean jarraitzeko. Gaur egun, mugikortasun urriko pertsonek garraio publikorako sarbide-aukera

**Zerbitzu hori erabiltzaileentzat mugarik gabe emateari buruzkoak izan dira batez ere gure esku-hartzeak**

**Herritarrek ingurumenean edo gizartean eragina duten azpiegiturei buruzko erabakietan parte hartzearen** kasuan, Arartekoak herritarren foro bat sustatu zuen 2007. urtean gai horren inguruan.

Lurralde historikoetan ezarritako garraio publikoetako ordainketa- eta beherapen-sistemei buruzko ebazpenak egiten ere esku hartu dugu. Besteak beste, adierazi dugu

askoz ere murritzagoak dituzte, oraindik dauden egokitzapen-arazoak direla eta.

Halaber, nabarmendu behar dugu garrantzitsua dela herritarren parte-hartzea interes orokorreko obrak eta azpiegiturak egitean, eta parte-hartze hori egin nahi den obraren plangintzaren eta diseinuaren hasierako faseetan erabili beharko litzatekeela ■

# 11. Jarduera ekonomikoaren antolamendua



**Jarduera ekonomikoaren antolaketa arloan, adierazi behar dugu jasotako salaketen kasuistika aldatuz joan dela** 25 urte hauetan. Erakunde honen ibilbidearen hasieran, nagusi ziren lehen sektoreari edo nekazaritzari edo abeltzaintzari buruzko kexak (baso-teknikariek ustiapenen arteko tarteen gutxieneko distantziei buruzko legedia betetzen zituzten zalantzan jartzen zuten abeltzainak, ehiza egiteak ingurunean eragiten duen ondorioa eta abar) eta bigarren sektoreari edo industria-sektoreari buruzkoak (ibilgailuen azterketa teknikoetatik eratorritako kontuak, besteak beste). Azken hamarkada honetan, berriz, oinarrizkotzat eta funtsezkotzat har daitezkeen zerbitzuen erabiltzaileek azaldutako arazoak neurri handiagoan nabarmendu dira, besteak beste elektrizitatearen, gasaren eta telefonia-zerbitzuen hornidurako zerbitzuen erabiltzaileenak.

**Azken hamarkada honetan, berriz, oinarrizkotzat eta funtsezkotzat har daitezkeen zerbitzuen erabiltzaileek azaldutako arazoak nabarmendu dira**

Esparru honetan, hau adierazi behar dugu: 2012ko maiatzean ***Aplicación de los derechos de las personas usuarias y consumidoras en la Comunidad Autónoma del País Vasco*** izeneko lana aurkeztu zen, Farapi, S.L. enpresak egindakoa. Enpresa hori izan zen Arartekoak 2011. urtean deitutako ikerketa-bekaren adjudikazioduna. Azterketa analitiko bat da, dibulgazioa eta sentsibilizazioa helburu dituena, Euskal Autonomia Erkidegoan teknologiaren, telekomunikazioen eta aireko garraioen sektoreetan erabiltzaileak eta kontsumitzaileak diren pertsonen eskubideen egoera hizpide duena. Azterketaren helburu nagusia da hiru sektore horietan pertsona erabiltzaileen erreklamazio- eta defentsa-moduak eta -prozedurak aztertzea, eta erreklamazio-prozesuan eragileek zer zeregin betetzen duten aztertzea.

Lan hori UPV/EHUren Udako Ikastaroen esparruaren baitan aurkeztu zuen Arartekoak. Lan horren bidez, eztabaida publiko bat sortzen saiatu zen, oinarrizkotzat eta funtsezkotzat jotako interes orokorretako zerbitzuetarako sarbidea herritar guztientzat unibertsala eta kalitatekoa dela bermatzeko herri-administrazioek egin beharreko kontrol eraginkorrak eta erreala lortzeko betebeharrek zer helmen izan behar duten sakonkiago aztertze aldera.

Azkenik, adierazi behar dugu, gure gizarteak bizi duen krisi ekonomiko latzaren ondorioz, erreparatu dugula erakunde ekonomikoekin eta finantzarioekin dituzten harremanetan sortzen diren arazoei buruzko gero eta erreklamazio gehiago aurkezten dituztela herritarrek, eta igoera hori esanguratsua izan dela. Nahiz eta euskal herri-administrazioak berez gatazka horietan nahasita ez egon, erakunde hau tartean sartuta dauden eragile guztiekin batera lanean ari da, kaltetutako pertsonen babesean aurrerapenak egiten jarraitzeko. Hori dela eta, 2013. urteko UPV/EHUren Udako Ikastaroetan, Arartekoak hausnarketa- eta eztabaida-jardunaldi bat antolatu zuen finantza-**erakundeekin dituzten harremanetan Pertsonen eskubideak babestea**ri buruz ■

# 12. Herri-administrazioaren zerbitzuko langileak



**Herri-administrazioen zerbitzurako langileak dira herritarrek administrazio on baterako eskubidea** asetzeko duten faktorerik garrantzitsuena, bai eta ekonomia- eta gizarte-garapenari laguntzeko faktorerik garrantzitsuena ere.

Berdintasunaren printzipioa nagusi izan behar da langile horiek hautatzean, eta printzipio hori berariaz proiektatzen da enplegu publikoan, **Espainiako Konstituzioaren 23.2. artikuluan** duen konstituzio-irudikapena oinarri hartuta.

Arartekoak 25 urte hauetan egin duen lanaren hein handi bat deialdietan eskatu diren sarbide-betekizunak derrigorrez merezimendu- eta ahal-printzipioei buruzkoak izan direla ziurtatzean datza.

Erakunde honek azpimarratu nahi izan du beharrezkoa dela langile publikoen lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko neurrien alde egitea, emakumea lan-merkatuan masiboki lan egiten hastearen eta familia-eredu berriak sortzearen ondorioz gertatzen ari diren gizarte-aldaketa garrantzitsuen aurrean.

Bestalde, indarra hartzen ari den fenomeno bati lagundu behar izan diogu kezka handiz, hain zuzen ere, laneko erasoari edo *mobbing* delakoari. Fenomeno horrek gerturatzeko ikuspuntu bikoitza izatea eskatzen du: bata orokorra, arazoari osotasunez prebentzio-neurrien bidez heltzea, eta bestea, berezia edo banakakoa, erasoa jada adierazi den kasuetan esku hartzea.

**Erakunde honek azpimarratu nahi izan du beharrezkoa dela langile publikoen lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko neurrien alde egitea**

Era berean, behin eta berriz jo dugu autonomia-erkidegoko administraziotara, diskriminazio positiboko sustapen-neurriak zaindu zitzaten, bereziki ahulak diren kolektiboen sarbidea errazteko, hala nola ezgaitasuna duten pertsonen kolektiboena. Neurri horietako bat, oso garrantzitsua, da plazen erreserba-kupoa ezartzea, eta hainbat gomendio egiteko arrazoia izan da.

Edonola ere, jasotako kexek bide eman digute enplegu publikoari buruzko askotariko gaiak aztertzeko, eta gai horiek Eusko Jaurlaritzari aurkeztu dizkiogun urteko txostenetan adierazi ditugu ■

# 13. Ezintasunen bat duten pertsonak



**Urritasuna duten pertsonen eskubideen gaiak leku nabarmena izan du gure erakundean**, beren jabetzakoak diren eskubideak erabiltzeko oztopo handiak dituen kolektibo bat baita. Erakunde honek 25 urteko funtzionamenduan egin dituen jarduketa ugarien lehentasunezko helburua izan da gizartea kolektibo horren benetako beharren inguruan gehiago sentsibilizatzen saiatzea, baztertuaz ez izateko duten eskubidea eta aukera berak izateko eskubidea errealago eta eraginkorrago egiteko estrategia gisa.

Urte hauetan, esan dezakegu esparru horretan hainbat gomendio orokor egin direla, eta horien artean «Ingurune fisikoan irisgarritasunaren arazoari» buruzkoa izan da. Gomendio horretan, azpimarratu zen beharrezkoa zela lege mailako arau berri bat onartzea, eta arau horrek araudi berean elkartu behar ditu barrerak, arkitekturakoak nahiz hirigintzakoak, bai eta garraioan eta komunikazioan daudenak ere, kentzea. 1997. urtea izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren esparruan **Irisgarritasuna Sustatzeko Legea** onartu zen urtea, hain zuzen.

2005. urteko txostenean, gomendio bat egin genuen, Eusko Jaurlaritzak itsu-txakurren legea aldatzeko aukera azter zezan. Araudi horrek bermatzen du ikusteko desgaitasuna duten pertsonek beren itsu-txakurrekin leku, zerbitzu eta garraio publikoetara edo erabilera publikoa dutenera sartzeko eskubidea, eta berriz zehazten du itsu-txakurren edo laguntza-txakurren kontzeptua, beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonek ere erabili ahal izan ditzaten. Ondore horietarako, 2007. urtean Eusko Legebiltzarrak ***Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzkoa Legea*** onartu zuen.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako txosten berezi batzuetan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eragiten dieten zenbait gai aztertzen dira. Hala, ***Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera*** izeneko txostenean aintzat hartzen dira zerbitzu horien irisgarritasun- eta mugikortasun-baldintzak. ***Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo*** txostenean, berriz, kolektibo horrek lana izateko duen aukera aztertzen da; eta ***EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna*** txostenean, aldiz, eskola-integraziorako aukera aztertzen da. Txosten horien ondoren, ***Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*** eta ***EAEn erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna*** txostenak egin ziren. Ondoren, ***EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa*** argitaratu zen. Diagnostiko horri esker, egoera egiaz zer-nolakoa den helarazi ahal izan diegu gizarteari eta erakunde eskudunei, hautemandako defizitak gainditzen lagunduko duten erabaki estrategikoak hartu ahal izateko.

Ondorio gisa, esparru horretan hau aditzera eman nahi dugu: araudi-egitura batez hornitu bagara ere, gai honetan nahasitako herri-administrazioek analisi sakon bat egin behar dute, eta beharrezko kontrol-mekanismoak ezarri behar dituzte, esparruan indarrean dagoen araudia irisgarritasun unibertsalaren ikuspuntutik aplikatzen dela bermatzeko ■

**Jarduketa ugarien lehentasunezko helburua izan da gizartea kolektibo horren benetako beharren inguruan gehiago sentsibilizatzen saiatzea**

# 14. Gaixo kronikoak



**Arlo honetan, gure lanaren helburu nagusia izan da bere arretan dauden defizitengatik**, arreta horren kalitateagatik nahiz beren gizarte-estigmagatik, ahulezia edo bazterketa handiagoko egoera pairatzen duten gaixo kronikoen kolektiboei arreta berezia ematea.

Gure ibilbidearen hasieran, buruko osasun-arazoak zituzten pertsonen beharren inguruan esku hartu genuen batez ere. Arartekoak kolektibo horrengatik zuen kezka zela eta, 2009. urtean kolektibo horrentzako arlo bat sortu zen.

Erakunde honek gaixotasun hauek dituzten pertsonen eskubideen alde garatutako lana azpimarratu behar dugu: lehen mailako edo bigarren mailako linfedema; Draveten sindromea; fibromialgia; neke kronikoa; sentikortasun kimiko anizkuna; elektrohipersentsibilitatea; metabolismoaren sortzetiko gaixotasunak; agenesiak; prebalentzia baxuko gaixotasunak (gaixotasun arraroak izenez ezagunagoak); giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa; hezur-muineko gaixotasunak, gaixotasun neuromuskularrak, kardiobaskularrak, gibelekoak eta birikakoak; hartutako kalte zerebrala eta beste gaixotasun neurologiko mota batzuk; eta erretinosis pigmentarioa.

Gure jarduketak lagungarriak izan dira pertsona horien berariazko beharrak nabarmentzeko eta euskal herri-administrazioek behar horiek artatzeko derrigorrezko zeregina dutela azpimarratu dute. Halaber, adierazi dugu iraupen luzeko gaixotasunak direnez eta, oro har, pixkanaka egiten dutenez aurrera, berez sendagarriak diren tratamenduak ez diren tratamenduak edo zainketak oinarri dituen arreta behar dutela batez ere, eta pertsona horien bizi-kalitatea bermatzen duen gizarte- eta osasun-ikuspuntua izan behar duela oinarri arreta horrek, gaixoaren autonomia eta zainketa sustatuz, narriatzea prebenituz eta tratu eta aukera berdintasuna bultzatuz.

Ezinbestekoa da erakundeek babes handiagoa ematea diru-irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei, gaixo kronikoen eta beren familien bizi-kalitatea hobetzeko lanean ari direnei. Izan ere, erakunde horiek kaltetutako pertsonen eta beren familia- eta gizarte-ingurunearen autozainketa, autonomia eta ahalduntzea sustatzen eraginkorrak direla frogatuta dago, eta era berean, oso eraginkorrak dira prestakuntza, informazioa eta babes psikologikoa ematen. Horrek zuzendu behar du Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako kronikotasuna, eta azken urteetan aztertzen ibili gara.

**Gure jarduketak lagungarriak izan dira pertsona horien berariazko beharrak nabarmentzeko**

Arartekoak ***Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausoak. Hurbilketa*** (2008) izeneko txostenean emandako gomendioak zenbateraino bete diren ikusteko egindako jarraipenetik, hau ondorioztatu dugu: esparru horretan erregistratutako aurrerapenak gorabehera, hiru lurralde historikoetan premiaz aztertu behar da baliabide soziosanitarioen garapenaren homogeneizazioa, diziplina arteko taldeen bidez lehen mailako arretan koordinazio soziosanitarioa, baterako araudi-esparru bat sortzea eta informazio-sistema partekatu bat ezartzea ■

# 15. Buruko gaixotasuna edo nahasmenduak dituzten pertsonak



**Arlo honetan, gure lana ikuspegi honetan oinarritu da: pertsona horiek herritar eskubidedunak dira**. Hori dela eta, ahalduntzea, gizarteratzea, errehabilitazio psikosoziala, eta parte-hartze erreala eta eraginkorra nabarmentzen ditugu.

Beren ahulezia berezia eta baliabideetara sarbidea izateko zailtasun handiagoa direla eta, botere publikoek pertsona horien jabetzakoak diren eskubideak eraginkortasunez erabiltzea ahalbideratuko duten baldintzak bermatu behar dituzte.

Autonomia-erkidegoko arreta, norberaren autonomia eta estigmaren desagerpena sustatzeak, zainketen jarraitutasunak, zuzentasunak, ardurak, koordinazioak, integrazioak, eraginkortasuna eta parte hartzeko foroak eta senideen eta gaixoen asoziazionismoa sustatzeak printzipio izan behar dute, eta gure herri-administrazioek printzipio horietatik hartu behar dute inspirazioa jokatzeko garaian, batez ere, osasun-, gizarte-, hezkuntza-, enplegu-, justizia- eta etxebizitza-arlokoetan.

helduentzako eta haur eta gazteentzako eguneko ospitaleak sortzen, ezartzen eta hobetzen egindako bulkada nabarmenari. Halaber, ospitaleratze laburreko, egonaldi ertaineko unitateak eta errehabilitazioko eta psikogeriatriako unitateak ere sortzen bultzada handia eman da. Era berean, ospitaleak ez diren egoitza-egiturak pixkanaka sortu eta handitu egin dira, hala nola zaintzapeko etxebizitzak, gainbegiratutako etxebizitzak, miniegoitzak, etxeak eta komunitate terapeutikoak. Hori guztia baliabide horiek erakundeetatik kanpo uzteko prozesu bukatu gabe baten baitan egin da, eta komunitateko baliabideen sustapena behar du.

Nahiz eta aurrerapenak erregistratu, hainbat arlo hobetu egin behar direla azpimarratzen jarraitzen dugu, besteak beste, errehabilitazioko tarteko egituren sustapena, nortasun-nahasmenduen azterketa, borondatez ospitaleratzen ez denean gaixoak zer eskubide dituen eraginkortasun jakiteko bermea (**2013ko gomendio orokorra**) eta zerbitzu eta prestazio sozialetarako eta soziosanitarioetarako sarbidea, buruko gaixotasuna duten pertsonen

**Arlo honetan, gure lana ikuspegi honetan oinarritu da: pertsona horiek herritar eskubidedunak dira**

Administrazio horien jarduketak adierazitako printzipioen isla zehatza izateko lanean jardun dugu, eta Arartekoa garen aldetik, hori lortzen lagundu dugu, elkarteekin lankidetza dinamikoan lan eginez etengabe, kexa partikularrak eta ofiziozko espedienteak izapidetuz, eta txosten bereziak egitearen kariaz, hala nola ospitale psikiatrikoei, autonomia-erkidegoko buruko gaixotasunen arretari, buruko osasuna eta espetxeari edo ikasketei buruzkoak, bai eta haurtzaroko, nerabezaroko, gaztaroko eta zahartzaroko buru osasunaren arretari buruzkoa ere.

25 urte hauetan, lagundu egin diogu buruko osasunaren zentroak eta pertsona mendekotasuna baloratzeari buruzko gaiek arrazoituta.

Osasunaren Mundu Erakundeak emandako informazioaren arabera, azken urteetan Europan pobreziak gora egin du, eta horren ondorioz, europar biztanleen artean buruko osasuna nabarmen kaltetu da. Gaur egun, krisi-egoera latza bizi dugu, eta krisiak eragina izan du osasun- eta gizarte-prestazioetarako sarbidean, prestazio horien mailan eta kalitatean. Prestazio horien ardura eta kudeaketa herri-administrazioen eskumenekoak dira, eta buruko gaixotasuna duten pertsonen babesari lehentasuna ematea eskatzen dute ■

# 16. Espetxeratuak



**Espetxeratuak gure gizarteko kolektiborik ahulenetako bat dira**. Arartekoaren ustez, errealitate horren aurrean jarduteko betebeharra du, nahiz eta espetxe-arloko eskumenak euskal administrazioari eskualdatu ez izana muga handia izan guretzat.

Gauza ez da beren eskubideak espetxean defendatzea bakarrik. 25 urte hauetan, Arartekoak egungo zigor-sistemari buruzko gogoeta egitea sustatu nahi izan du, Legeak erakunde honi esleitzen dion giza eskubideen kultura hedatzeko lana betetze aldera. Xede horrekin, urterik urte, zentzu horretan **1996. urtean botere publikoei egindako gomendioak** jarraitu ditugu, bai eta eguneratu ere. Gomendio horiek ildo nagusi hauei jarraitzen zieten:

- Sailkapenen eta helmugen politika: hirugarren gradua sustatzea eta baliabideez hornitzea, preso mota desberdinenekin lotuta bideragarria izan dadin.
- Emakumea eta espetxea: emakumeen departamentuetan espazio eta baliabide gutxiago izatearen ondorioz, eskubideen urraketak eta berariazko arazoei arreta ez ematea.
- Espetxe-administrazioaren eta esparru horretan lan egiten duen asoziazio-munduaren arteko elkarreragina.
- Segurtasun-neurriak eta espetxea ez diren betetzeko neurriak.
- Espetxeko psikiatria: Osakidetzak esparru horretan eskumenak bere gain hartzea urte honetan bertan txosten berezi bat aurkeztera bulkatu gaitu, gai horri buruzko proposamenak jasotzen dituena.
- Espetxeko gizarte-laguntza: espetxeratuei kendu behar ez zaizkien zenbait gizarte-baliabide eskuratzeko zailtasunak, esaterako, oinarrizko errentaren prestazioak, espetxera joateko garraio egokia, jarraitutasuna eta lan-merkatuari begira garrantzia duen prestakuntza-eskaintza bat.
- Espetxeratu atzerritarren berariazko arazoa: kanporatzeak, lan-baimenak eta egoitza.

**25 urte hauetan, Arartekoak egungo zigor-sistemari buruzko gogoeta egitea sustatu nahi izan du**

Zeregin horrek gizarte zibiletik espetxeratuen gizarteratzean lan egiten duten erakundeen babesa izan du uneoro, eta babes hori elkarrenganakoa izan da. Erakunde horien helburu bera dugu guk ere: botere publikoez gain, gizarteak bere izenean egiten den esku-hartze penalaren erabileraren ardura hartu behar du, bere ondorioak ezagut ditzan, eta gizarte-justiziako parametro batetik onargarriak iruditzen ez zaizkion neurrian, **espetxe-eredu propio** baten diseinua eta kudeaketa sustatzeko, marjinazioa areagotuko ez duen zigorrak betearazteko sistema bat, gure espetxeak betetzen dituzten pertsona gehienak berriz delitua egitera bultzatzen dituen faktoreak kroniko bihurtuko ez dituena ■

# 17. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk



**Mendeetan zehar, ijitoak baztertu eta arbuiatu egin dira**, eta egoera horrek beren gizarte- eta ekonomia-estatusa zaildu du. Arartekoak ijitoen herriaren historiari, jazarpenari eta gure gizartean sozialki eta ekonomikoki parte hartzeko izan duen aukera-faltari buruz ohartarazi du. Azpimarratu da beharrezkoak direla berdintasuna sustatzen duten ekintza positiboak, bereizketaren aurkako neurriak eta ijitoen kultura aitortzearen garrantzia.

Jaso ditugun kexetako asko ijitoek erroldan izena emateko eskubidearekin eta ostatu egoki baterako eskubidearekin lotuta daude. Erroldan izena ematea ukatzeak beren eskubideen erabilpena zailtzen du, eta auzoko diren aldetik, baztertuak izatea dakar berekin. Erakunde honek udalei gogorarazi die beren udalerrietan bizi diren pertsonak erroldan inskribatzeko betebeharra dutela. Ostatu egoki baterako eskubidea esku-hartze askoren xedea izan da, hala nola Sestaoko Gida Plana onartzearen ondorioz egin zena. Plan horren helburuetako bat zen gizarte-bazterketako egoeran zegoen eremu batean pertsonen kontzentrazioa murriztea edo Santa Juliana auzoan (Abanto-Zierbena). Auzo horiek hirigintza-, ekonomia- eta gizarte-narriadura handia pairatu dute, eta errehabilitazioko hirigintza-jarduketak eta pertsonei ostatu ematea eskatzen dute. Arartekoak gomendatu du prozesu horietan esku-hartze integral bat egiteko, beharrik oinarrizkoenak ase gabe dituzten pertsonen eskubideak bermatzeko eta herritarrek parte hartzeko eta herritarrei informazioa emateko prozesu bati ekiteko.

**Erakunde honek udalei gogorarazi die beren udalerrietan bizi diren pertsonak erroldan inskribatzeko betebeharra dutela**

Hezkuntzaren esparruan, Arartekoak txosten berezi bat egin du. Txosten horretan, gomendatu du, besteak beste, ikastetxeetan behar adina baliabide eta baliabide egokiak izatea beharrezkoa dela, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatuko duten neurriak hartu behar direla. Beste txosten interesgarri bat izan zen ***Arabako sasoikako langileen egoerari*** buruz egin zena.

**Jendearentzat zabalik dauden establezimendu pribatuetako sarrera diskriminazioa debekatzeri** buruzko gomendio bat ere egin da duela gutxi.

Halaber, Arartekoak **jatorriz Europar Batasunekoak diren ijitoen egonlekuekin** lotutako esku-hartze bat ere egin du. Horiei aurre egiteko, ijitoak gizarteratzeko estrategia nazionalen europar markoa onartu da.

Arartekoak gomendatu du beharrezkoa dela jarduketa-protokoloak egitea, administrazioek esku hartu dezaten. Tartean dauden administrazio guztiek pertsonen eskubideei errespetuzko erantzun bat ematean datza, gizarteratzeko prozesuak erraztuko dituena.

Beraz, azpimarratzen da ijitoen eskubideak defendatzeko derrigorrezko konpromisoa dutela, aurreiritziak saihesteko eta beren beharrak ez ahazteko, ahazte horrek pertsona askok pairatzen duten gizarte-bazterketa iraunarazten baitu. Eskubideetarako, prestazioetarako eta zerbitzu publikoetarako sarbidea berdintasunezkoa izatea bermatzeaz gain, politika publikoek ijitoen ahalduntzean, autonomian, eta gizarte- eta ekonomia-partaidetzan zer-nolako eragina duten aintzat hartu beharko litzateke, kultura-gutxiengo gisa zer eskubide dituzten kontuan izanda ■

# 18. Etorkinak



**Etorkinen duintasunaren eta berdintasunaren aldeko borroka Arartekoaren lanaren funtsezko elementu bat da**. Arartekoaren lanaren aginduetako bat da, besteak beste, pertsona eta talde guztien askatasunerako eta berdintasunerako baldintzak errealak eta eraginkorrak izatea sustatzea (**Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikulua**).

Erakunde honek sentikortasuna agertu du, indarkeriaz, aukera-gabeziaz edo miseriaz, ihesi, beste hainbat arrazoiren artean, gure hirietara etorri diren etorkinen beharrekiko. Biztanleria horren egoerak, beharrak eta nahiak askotarikoak izatea erronka bat da herri-administrazioentzat eta Arartekoarentzat. Hori dela eta, erakunde honek 2001. urtean immigrazioari **plan oso bat** behar zela eskatu zuen. Herri-administrazioek hainbat plan diseinatu dituzte maila guztietan, eta 2003. urtetik aurrera, zenbait jarduketa-ildo eta estrategia jarri dira abian, kolektibo horrekiko esku-hartzea hobetu dutenak.

**Oinarrizko eskubideen errespetua**, hala nola bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea edo erlijio-askatasunerako eta gurtzeko askatasunerako eskubidea, hainbat gomendioren xede izan dira. Gomendio horietako batzuetan adierazi da utzitako eraikinak hutsarazi baino lehen plangintza bat egin behar dela, arazoaren gizarte-garrantzia aintzat hartzen duena; hilerrietako zerbitzu publikoak egokitu egin behar direla erlijio-sinesmen desberdinetara; edo udalek betekizunak betetzen dituzten eta erlijio-gurtzarako erabiliko diren lokalei lizentziak eman behar dizkietela.

Beste kexa batzuk atzerritarrek poliziarengandik jasotako tratuari buruzkoak ziren edo jendeari irekitako establezimenduetan sarrera ukatzeko eskubidea gehiegi erabiltzearen aurrean jarduketarik ez egin izanari buruzkoak. Hori dela eta, Arartekoak gogora ekarri du garrantzitsua dela jarduketa baztertzaileak saihesteko mekanismoak ezartzea, eta baita sarrera ukatzeko eskubidea gehiegi erabiltzeagatiko salaketen aurrean araudia eta prozedura egokitzea ere. Halaber, azpimarratu du arrazagatiko delituen aurkako jarduketak garatu behar direla. Era berean, gogorarazi dugu garrantzitsua dela **estereotipoak eta aurreiritziak ez sustatzea** atzerritarrei eragiten dieten datuak ematean. Erakunde honek oinarri du gizaki orok bere ahalmenak eta gaitasunak garatzeko eskubidea izatearen uste osoa, bere jatorria edozein izanda ere, eta halaber, uste du, kudeatzaile publikoek politika publikoak garatu behar dituztela, **gizarte inklusibo bat** sortzea helburu dutenak ■

## Arartekoak atzerritarren eskubideak eta zereginak defendatu ditu, gainerako pertsonekin berdintasunean

Eskubideetara, zerbitzuetara eta prestazio publikoetara sarbidea izateko zailtasunen inguruko kexa ugari kudeatu ditugu, hala nola osasun-arreta izateko, erroldan izena emateko, diru-sarrerak bermatzeko errentaren diru-laguntzak emateko, ostatu egoki bat mantentzeko edo ezgaitasun bat izateagatik edo genero-indarkeriako egoera bat pairatzeagatik gizarte-baliabide bat mantentzeko zailtasunak. Arartekoak, uneoro, atzerritarren eskubideak eta zereginak defendatu ditu, **gainerako pertsonekin berdintasunean,** eta hori dela eta, gomendio ugari egin ditugu, administrazioetatik jasotako erantzunari balorazio positiboa emanez.

# 19. LGTBI pertsonak



**Arlo honetan, gure lana lesbianek, gayek, bisexualek, transexualek eta intersexualek beren herritar-eskubideak erabat erabiltzea** defendatzera bideratuta daude, beren sexu-joeragatik eta genero-nortasunagatik berdintasunaren eta bereizkeria-ezaren ikuspuntutik. Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak eta jarduketak garatzea sustatu nahi dugu, eskubide horiek berdintasun-baldintzetan erabil daitezen.

2008. urtean lan-arlo hau sortu zenetik, gomendio orokor bat eman da **familia homoparentalei eta sexu bereko bikote eta ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzearekin** lotuta. Halaber, ikerketa-lan bat egin da **emakume lesbianen ikusgarritasunari eta sexu-partaidetzari** buruz, bai eta **txosten berezi bat ere Euskadin transgeneroek eta transexualek duten egoerari buruz** ere. Era berean, herritarren foro bat antolatu dugu **nerabe eta gazte lesbiana, gay, transexual eta bisexualek bizi dituzten zailtasunei eta gizarte-trabei buruz**. Espetxeetara eta hainbat arreta-baliabidetara egindako ikuskatze-bisitetan, LGTBI pertsonen ikuspuntua ere aintzat hartzen dugu. Halaber, hezkuntzaren esparruan afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasunerako eskubideari buruzko bi europar proiektutan parte hartu dugu (**Rainbow** eta **Rainbow Has**). Azkena oraindik abian da eta Arartekoak koordinatzen du. Proiektu horien emaitza gisa, zenbait hezkuntza-material hedatu ditugu, eskolan haurren, gazteen eta nerabeen afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasunaren errespetua eta erabateko integrazioa sustatzeko.

Gure jarduketen emaitzari esker, lortu dugu Eusko Jaurlaritzak bere sail guztien artean hedatzea beharrezkoa dela inprimakiak eta formularioak familia homoparentalen edo sexu bereko bikotekideen edo ezkontideen errealitatera egokitzea. Halaber, hainbat galdera egin dizkiogu Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritzari epaitegiek eskatuta, bi ama dauden kasuetan seme-alabatasunaren izena ematearen ingurukoak. Era berean, hainbat administrazio-ekimen sustatu ditugu LGTBI adingabeei eta beren familiei babesteko esparruan, eta afektibitate-, sexu- eta genero-hezkuntzaren esparruan ere. Halaber, une gogoangarri azpimarragarri bat izan zen **Eusko Legebiltzarraren 14/2012 Legea, ekainaren 28koa**, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, aldarrikatzea.

LGTBI pertsonen eskubideen esparruan aurrera egitea erakunde publikoek sustatu behar dute, gure adingabeen hezkuntzan bereziki azpimarratuz; hau da, parekoen errespetua gauzatzeko, eta haurtzarotik afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasunerako eskubideak erabat erabiltzeko ekintzak bultzatuz. Oraindik administrazio guztietara hedatu behar da familia homoparentalentzat eta sexu bereko bikoteentzat edo ezkontideentzat oztopo formalak edo administrazio-oztopoak kentzea, eta era berean, emakume lesbianen egoera ere behin betiko argitu behar da bere seme-alaben seme-alabatasunaren aitortzeari dagokionez. Halaber, pertsona transexualen eskubideak ez baztertzeari eta aitortzeari buruzko euskal legea garatu behar da, batez ere osasun-arretari eta pertsona horien nortasun-agiriari dagokionez ■

> **Hezkuntzaren esparruan afektibitate-, sexu- eta genero-aniztasunerako eskubideari buruzko bi europar proiektutan parte hartu dugu (Rainbow eta Rainbow Has)**

# 20. Adinekoak eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak





**Adinekoen kolektiboaren behar bereziek, bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gizartean gero eta ugariagoak izateak** eta kolektibo horren heterogeneotasunak –autonomia pertsonala eta gizartean aktiboki parte hartzeko ahalmena duten pertsonak nahiz muga handiak dituzten mendekoak hartzen ditu bere baitan– eragin dute Arartekoak, sortu zenetik, kolektibo horri arreta berezia eskaintzea. Talde horrek mendekotasun-egoeran dauden pertsonen %80 osatzen du gutxi gorabehera. Gainerako %20 desgaitasun motaren bat duten pertsonek osatzen dute, eta pertsona horiei ere gure arreta berezia eskaini diegu.

Kexa partikularrak eta ofiziozko kexak izapidetuz; gomendio orokorrak emanez, hala nola **zaharren egoitzetan sartzeko jardunbide neurri berme-emaileei** buruzkoa; azterketak eginez, besteak beste, **adinekoei tratu txarrak ematea prebenitzeari** buruzkoa; eta txosten bereziak eginez, hala nola **adinekoei emandako egoitza-arreta eta autonomia-erkidegoko arretari** buruzkoa, eta duela gutxi egin dena, **EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioari** buruzkoa; esparru horietan alderdi jakinak zuzentzea eta hobetzea; etxean arretak profesionala izatea eta arreta hori asteburuetara hedatzea; adinekoen kolektiboei laguntza teknikoetarako edo babes-produktuetarako sarbidea eskaintzea; eta mendekotasunaren babes-sistemara sartzeko betekizunak malgutzea eta mendekotasunaren baremo berria aplikatzearen ondorioak arintzeko neurriak hartzea.

Gaur egun, ezinbestekoa da pertsona etxebizitzan mantendu behar dela sustatzen jarraitzea; pertsona horiei eman dakiekeen edozein tratu txar mota hautematea eta errotik kentzea; espazio soziosanitarioa garatzea; pertsona oinarri duen arreta gerontologikoaren eredua praktikan jartzea, berekin dakarren sentsibilizazioarekin eta prestakuntzarekin; eta profesionalen rol berriak formulatzea, antolaketa-sistema batzuk berrikustea eta eredu berri horrekin bat datozen esku-hartzeak diseinatzea. Era berean, ezinbestekoa da zahartze aktiboa sustatzea, adinekoen prestakuntza, informazioa eta parte-hartzea bermatzeko ekintzak eginez, eta, nahi dutenei, beren ezagutza, esperientzia eta lankidetza emateko aukera ematen dieten jarduerak eginez.

## Ezinbestekoa da zahartze aktiboa sustatzea

gizarte-politikei buruzko hausnarketa egiten lagundu dugu, eta oraindik artatu gabe dauden hobetzeko arloak eta beharrak identifikatzen, banakako arreta ematen saiatuz, pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko ahalegina eginez, eta beren duintasuna eta oinarrizko eskubideak errespetatzen direla bermatuz.

Hauek dira guk egindako esku-hartzeen adibide batzuk: familia-ingurunera gerturatzea irizpide garrantzitsutzat hartzea harrera-egoitzara lekualdatzean; egoitzetan zaintzako Estatu-mailan, norberaren autonomiaren eta mendekotasun-egoeraren arretaren sustapen-politiken garapenean atzerapen nabarmena izan da. Euskal herri-administrazioek arduraz hartu behar dute bere gain erronka hori, **12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan**, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, defendatutako eskubide subjektiboa gauzatze aldera, beren politika guztietan kolektibo honen arretari lehentasuna emanez ■

# 21. Talde terroristen biktimak



**Urte hauetan guztietan, erakunde honek bere konpromisoa adierazi die, denbora horretan**, hainbat talde terroristengatik bizitzarako eskubidean, osotasun fisikoan, eta askatasunean eta segurtasunean kalte larriak jasan dituzten euskal herritar ugariei. Horrez gainera, irmotasunez salatu ditu praktika terroristak, bai bere txostenetan eta Legebiltzarreko esku-hartzeetan, bai komunikabideen aurrean egindako adierazpenetan.

Zentzu horretan, azpimarratu behar da Arartekoak esku hartu zuela terrorismoaren biktimen egoerei buruz hitz egiteko eratu ziren Legebiltzarreko bi batzorde txostengileetan, eta gai horri buruzko bere ekarpenak aurkeztu zituela. Legebiltzarreko foro horretan, erakundeak biktimen esanahi politikoari buruzko hausnarketa egin zuen, eta azpimarratu zuen beharrezkoa zela indarkeriaren eta terrorismoaren biktimei materialki eta moralki ordaintzea. Aditzera eman zen «jazarpenaren indarkeria» delakoa zuzenbidezko estatuaren zutabeak osatzen dituzten kolektiboen aurka indar osoz zuzentzen ari zela. Azkenik, balioetan hezteko ideia defendatu zuen, bakerako oinarri gisa.

**Arlo horretan, jarduketa nagusia Euskadin terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrei buruzko txosten berezi bat egitea izan zen**

Arlo horretan, jarduketa nagusia **Euskadin terrorismoaren biktimen egoerari eta beharrei buruzko txosten berezi** bat egitea izan zen. Txosten horretan, esparru horretako nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudia aztertzen da. Terrorismoaren biktimen egoerari buruz erakundeek emandako erantzuna jasotzen da, eta 2003ko, 2005eko eta 2007ko Legebiltzarreko akordioak bete diren jarraitu da. Horrez gainera, parte hartzeko, duintasunerako, ordainketa material eta moralerako, justiziarako, egiarako eta memoriarako eskubideak aztertu dira. Eskubide horiek biktimek aldarrikatu zituzten, eta funtsezkoa den **4/2008 Legean, ekainaren 19koan**, terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa egitekoan, aintzat hartu dira. Bereziki azpimarragarria da erreparaziorako eskubideak osasunaren, etxebizitzaren, kalte materialen, enpleguaren, irakaskuntzaren eta prestakuntzaren esparruetan izan duen aplikazioari egindako jarraipena. Euskal Autonomia Erkidegoan biktimizazio terrorismoren esperientziak eta «jazarpenaren indarkeria» delakoaren mehatxuak eta/edo gogorkeria terroristak pairatu dituzten biktimen esperientziak bizi izan duten giza drama aditzera ematen dute. Txostenaren amaieran, gomendio batzuk egiten dira, euskal erakunde guztiek eta gizarteak berak konpromiso bat hartzeko lagundu nahi dutenak, terrorismoaren deslegitimazio etikorako, sozialerako eta politikorako, eta biktimekiko elkartasunerako.

Azkenik, Arartekoak hainbat jarduketa garatu ditu memoriarako eskubideari buruz udalen esparruan, herritarrengatik gertuen dagoen ingurunea izateagatik, bereziki erabakigarria baita terrorismoaren biktimen memoriarako eskubideaz baliatzeko.

Une hauetan, ETAk «indarkeria behin betiko lagako zuela» adierazi ondoren, azpimarragarria da jarduketa terroristek ez dituztela bizitzarako, osotasun fisikorako eta askatasunerako edo segurtasun pertsonalerako eskubidea urratu, eta horrenbestez, Arartekoaren jarduketek bakean eta askatasunean elkarrekin bizitzeko eskubidea lortzeko helburua dute ■

# 22. Animaliak babestea eta edukitzea



**Animalien bizi-baldintzak eta pertsonek ematen dieten tratua kezka etengabea eta garrantzitsua izan dira gure elkartean**, eta erakunde honek 25 urte hauetan garatutako lanean. Gai horri buruzko gizarte-kontzientzia ez dagokie animalien defentsan gehien sentsibilizatutako kolektiboei soilik, baizik eta herritar kopuru handi bati eragiten dio.

Animaliak defendatzeko eta babesteko eratu diren elkarte asko etorri dira erakunde honetara, eta botere publikoei lege-esparru horretatik eratorritako administrazio-eskumenez baliatzeko eskatzen zuten hainbat egoera planteatu dizkigute. Jakinda esparru horrek garrantzi handia duela, eta elkarte hauetako batzuek sinatutako eskaerei erantzunez, Arartekoak esparru horri dagokion garrantzia ematea erabaki zuen eta 2006. urtean berariazko arlo bat sortu zuen, euskal herri-administrazioek animalien defentsan eta babesean egindako jarduketen kontrola zaintzeko helburua izango zuena.



**Azpimarratu behar da Arartekoaren ebazpena (horren bidez, EuskoTreni iradokitzen zaio garraio zerbitzuan etxeko animaliak eramateko baimena ematea)**

Arlo horren barruan, gure zeregin nagusia hau izan da: pertsonek edo elkarteek euskal herri-administrazioen indarreko legedian jasotako edukiaren aurkakoak diren jarduketen aurka aurkeztutako erreklamazioak eta kexak berariaz aztertzea. Adibide gisa, 2004. urtean egin zen gomendio orokorra aipatu nahi dugu. Gomendio horren bidez, izenburuak dioen bezala, hau lortu nahi zen: «***Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzea dela-eta udalek hartutako neurriak. Lehenengo hurbilketa***». Jakinda tokiko erakundeek animalia horiek izatearen esparruko legedia abian jartzean zalantzak planteatu zituztela, erakunde honek irizten zuen **101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa, onartzetik aurrera, araudi horrek sor zitzakeen zalantzak jada argituta zeudela, prozedurak eta eman beharreko dokumentazioa normalizatuta geratzean.

Bestalde, azpimarratu behar da **Arartekoaren 2010eko otsailaren 23ko Ebazpena** (Horren bidez, EuskoTreni iradokitzen zaio garraio zerbitzuan etxeko animaliak eramateko baimena ematea, betiere, horrek beste erabiltzaile guztiei eragozpenik ez eragiteko baldintzak betez). Erakunde horrek egindako iradokizuna onartu zuen, eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, bidaiariek etxeko animalia batekin batera bidaia dezakete, baldin eta arriskutsua edo gogaikarria ez bada, bere formagatik, bolumenagatik, zaratagatik eta usainagatik.

Azkenik, arlo horretan izapidetutako kexen eduki jakinari buruz hau azpimarratu nahi dugu: oro har, animaliak edukitzeari, partikularren etxebizitzetan, eremu publikoetan, eta batez ere, harrera-zentroetan edo animaliak egoteko zentroetan, nukleo zoologiko esaten zaienetan, duten ongizateari buruzkoak dira ■

# 23. Herri-administrazioen araubide juridikoa, ondasunak eta zerbitzuak



**Arartekoak sortu zenetik erreferentziatzat hartu du herritarrek administrazio egoki bat izateko duten eskubidea.** Printzipio horrek hau dakar berekin: herri-administrazioek, herritarrekin dituzten harremanetan, beren funtzio publikoen erabilera administrazio-prozeduraren bidez bideratu behar dute. Administrazio egokirako eskubide horren baitan, behin eta berriz aldarrikatu ditugu euskal herri-administrazioen aurrean beren betebeharrak, idatziak jaso izanaren ziurtagiriari, ofiziozko bulkadari eta planteatutako galderetako bakoitzari berariaz erantzuteko betebeharrari dagokionez.

25 urte hauetan, arlo horretan, 15 gomendio orokor egin ditugu. Beharrezkoa da hauek azpimarratzea: udalerrian gizarte-bazterketako egoeran bizi diren pertsonen erroldatzeari buruzko gomendioak edo udal-administrazioek zerbitzu publikoen funtzionamendutik eratorritako ondare-erantzukizunagatiko erreklamazioei erantzuna emateko jarraitutako prozedura.

Gardentasunarekin eta informazio publikorako sarbidearekin lotuta, Arartekoa pertsona jakinek, elkarteek edo tokiko korporazioetako kideek eskubide horri emandako erabilerari buruzko dotrina jasotzen ibili da. Azkenik, Arartekoak udal-bizitzako zenbait gaitan herritarren parte-hartzea sustatzeko egindako jarduketa aipatu behar dugu, besteak beste, hondakinen gaikako bilketari buruzkoa.

Arartekoak kexa-espediente ugaritan esku hartu du, praktikan erraza dirudien gauza bat lortzeko, administrazioak herritarrek egindako askotariko eskaerei berariaz erantzutea. Hala ere, Legebiltzarreko agintari honek lan neketsua eta jarraikia egitea eskatu du. Aurrekoarekin lotuta, ezin dugu ahaztu betekizun juridikoei edo teknikoei buruzko egiazko informazioa eta orientazioa eskuratzeko eskubidea. Zentzu horretan, gure gomendioetako batzuk prozeduretan interesa duten pertsonak artatzen dituzten administrazio-unitateetako arduradunentzako protokoloak eta barne-jarraibideak hobetzeko izan dira, egiazko eta funtsatutako informazioa eman dezaten ■

**Arartekoak sortu zenetik erreferentziatzat hartu du herritarrek administrazio egoki bat izateko duten eskubidea**



**Osasuna giza eskubide bat denez, ez da harritzekoa osasunarekin lotutako kexa kopuru handi batek** zerikusia izatea osasunaren babeserako eskubidearen oinarrizko alderdietan izandako aldaketarekin.

Osasunerako eskubidearen eraketan izandako atzerapenek behar bezalako justifikazio bat egitea eskatzen dute. Ikusten dugu denon ustea dela atzerapen horiek egungo egoera ekonomikoaren ondorio direla ahotara ekartzea. Baina balizko aurrezpen ekonomiko baten aitzakia hutsaz haratago, hori ezin izan da zehaztu.

Banakako gomendioen eta gomendio orokorren bidez, Arartekoa **Osasun Sailarekin** eta **Osakidetzarekin** elkarlanean jarduten saiatu da, batez ere kexen bidez hautemandako arazoekin lotuta planteatutako arazoei ahalik eta irtenbide egokiena bilatuz.

Osasun Sistema Nazionalean aseguratuta ez dauden pertsonek osasun-laguntzarako sarbidean segurtasun juridikoa izatea edo dokumentazio klinikorako sarbideak irizpideak egokitzea izan dira egindako gomendio orokorretako batzuk.



## Arartekoaren lanak osasunaren eskubidearekin lotutako legezko itxaropen horiek bideratzeko helburua izan du

Gaixoei eman beharreko laguntzarekin zuzenean lotuta, ikusi dugu gaixoen itxaropenak ez direla soilik laguntza horren alderdi teknikoei eta medikoei buruzkoak. Halaber, zerikusi handia dute laguntza horren alderdi instrumentalekin, hala nola informazioaren hainbat arlo (zerrendak, zerbitzu-zorroak, prestazioetara sarbidea izateko prozedura) eta zerbitzu batzuen funtzionamendua.

Arartekoaren lanak osasunaren eskubidearekin lotutako legezko itxaropen horiek bideratzen saiatzeko helburua izan du.

Kexen zati handi batek antolaketa aldatzeko itxaropenak adierazten ditu, laguntza-prozesu integratuagoak garatzera bideratuak daudenak, eta horrek pentsarazten du beharrezkoa dela erabiltzailea tratatzeko eta informatzeko gaitasun hobe bat izatea.

Krisia ez da erabili behar, neurri murriztaileak hartzeko, baina horrek ez du esan nahi osasun-sistemei buruz hausnartzeko eta sistema horien eraginkortasuna hobetzeko balio ez duenik ■





**Arartekoak, eskubideak bermatzeko erakundea den aldetik, bere ibilbidearen hasieratik arreta berezia eskaini dio poliziaren funtzioari**. Izan ere, Segurtasunaren arloak eragiten dien funtzio publiko guztietatik horrexek sortzen du tentsio handiagoa banakako askatasunetan eta oinarrizko eskubideetan.

Esparru horretan egiten dugun lana, batez ere, prebentziozkoa izan da, eta, funtsean, polizien praktikak gainbegiratzeko mekanismoekin du zerikusia.

Erakunde honen 25 urteko funtzionamenduan, hainbat mekanismoren inguruan lan egin dugu, besteak beste: polizia-jarduketa oker baten edozein salaketa edo zentzuzko aztarna ikertzea; polizia-jarduerari buruzko datuak biltzeko sistemak ezartzea; jarduketak behar adina arrazoitzea eta jarduketa horien erregistroa; indarkeria erabiltzea eta kontrolatzea; eta atestatuen eta administrazio-salaketen edukia kontrolatzea, eragiten dituzten gertaerei dagokienez.

Hainbat gomendio orokor egin dira gai horren inguruan. 1998. urteko «***Bilboko San Frantzisko zonan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialei buruz Arartekoak izandako esku-hartzea***» izeneko txostena eta duela gutxiko **urriaren 28ko 7/2011 gomendio orokorra**, «Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari» buruzkoa, esparru honetan egindako jardueraren bi adierazle esanguratsu dira.

Atxiloketa da oinarrizko eskubideetan eragin handiena duen polizia-jarduketetako bat, askatasunaz gabetzen baitu eta beste eskubide batzuk mugatzea baitakar berekin. Hori dela eta, atxiloketen jarraipena egitea erakunde honen lehentasunetako bat izan da beti. Atxilotutako pertsonaren konstituzio-eskubideak, gorputzaren erregistroa, jarduketen erregistroa eta atxiloketak bideoz grabatzea dira gainbegiratzen ari garen alderdietako batzuk.



## Ararteko erakundea beti kezkatu da torturagatik eta tratu txarrengatik

Ararteko erakundea beti kezkatu da torturagatik eta tratu txarrengatik. Urte hauetan zehar, jarduketa ugari egin ditugu jarduketa gogaikarri hori egiteko. Azterlanik berrienetako bat da «***Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak***» izenekoa, 2010. urtean egin genuena.

25 urte hauetan, aurrerapen nabarmenak egin dira aipatu esparruetan, hala nola atxiloketa bideoz grabatzeko sistema orokortu izana. Hala ere, oraindik hobetzeko dauden esparruak daude, eta horien berri ematen ibili gara urtero Eusko Legebiltzarraren aurrean gure jarduerari buruz aurkezten ditugun urteko txostenetan ■

# 26. Informatzeko eta ezagutzeko teknologiak eta datuak babestea



**Informatzeko eta ezagutzeko teknologiekin lotutako eskubideak laugarren belaunaldiko gisa katalogatzen** hasiak dauden eskubideen baitan kokatzen dira, herritartasun digitala kontzeptuaren hedatzetzat hartuta, garapen teknikoen eta giza ingurunearen arteko harremanari buruz etengabe hausnartzen duen giza eskubideak ulertzeko modu berri batean.

Ikuspuntu horretatik, urte hauetan, Arartekoaren lanak herritarren eskubideei beren balioa eman nahi izan die, datuen babesarekin lotuta eta administrazio elektronikotik eratorritako eskubideekin lotuta. Era berean, eskubide horiek hedatzen, eskubide horiez baliatzeak eta eskubide horiek babesteak berrikuntzarako ahal handiagoa duten herritarrak sustatzen laguntzen dutela ulertzen funtzio proaktiboa bete nahi izan du.

Helburu horren testuinguruan sartzen da, Arartekoak **ingurumen-informazioa eskuratzearekin** lotuta emandako gomendio orokorra, bai eta **dokumentazio klinikoa eskuratzeko eskabideak ebazterakoan oinarritzat hartzen diren irizpideen egokitzeari** buruzko gomendio orokorra ere.

aztertu dira: sarbidearenak, erabilerarenak, eskuratzearenak eta parte-hartzearenak.

Herritarren kexa askok adierazten zuten oso herritar gutxik zekitela zer IKT eskubide zituzten administrazioarekiko harremanetan, eta horren ondorioz, **Herritarrek herri-administrazioekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan egoteko dauzkaten eskubideen dekalogoa** egin zen.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonei garraio publikoan duten irisgarritasunari buruzko informazio erabilgarria emateko tresna gisa, autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan eta baliabide turistikoetan **Ararteko mapak** jarri zen abian, herritarren, elkarteen, herri-administrazioen eta Arartekoaren arteko lankidetza-eremu bat. Eremu hori geo-kokapeneko proiektu gisa eratu zen, eta web-orri batean ikusizko mapa interaktibo batera sartzeko aukera ematen du, bai eta gailu mugikorren bidez sartzeko ere.

Arartekoak jakinarazi du herritarrak gero eta gehiago kezkatzen direla beren datuek Interneten eta sare sozialetan duten segurtasunaz, eta **datu pertsonalen eta norberaren irudiaren babesarekin lotutako**

**Arartekoak jakinarazi du herritarrak gero eta gehiago kezkatzen direla beren datuek Interneten eta sare sozialetan duten segurtasunaz**

Arartekoaren ***E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzeari*** **buruzko txosten bereziak** gogoeta-elementu berriak eman ditu, egungo egoeraren eta IKTen diagnostiko bat egin ahal izateko, herritarrak aktiboak eta inklusiboak izatea sustatzea, eta herritarren parte-hartzea errazteko. Txostenaren esparruan, lau arraila digital

**eskubideak** defendatzeko ekimenak sustatu ditu. Oraindik egiteko dagoen erronka bat da, eta Internet eta sare sozialak erabiltzen heldutasuna izatea eskatzen du, bai eta etika digitala izatea ere. Halaber, ezinbestekoa da, administrazioek eta erakundeek eskubideak bermatzeko arreta eta zaintza arretatsua egiten duten bitartean, herritarrak kontzientziatzea ■

# 27. Lana eta gizarte segurantza



**Lan-bitartekaritzari, enpleguaren sustapenari eta babesari, eta enplegurako prestakuntza profesionalari buruzko eskumenak**, 2010. urtean bere gain hartutako eskumenak, eskualdatu arte, kexa gehienak aurkeztea eragiten duten gaiak hauekin zerikusia izan zuten: enpresak sortzeko eta autoenplegurako laguntzen deialdiak, prestakuntza iraunkorreko laguntzetarako sarbidea, prestakuntzako ikastaroetarako sarbidea edo **Lanbide**k emandako zerbitzuari buruzko egoerak.

2010. urte horretan eskumenak bere gain hartu ondoren, egoera horretan, kexen iturri nagusia zerbitzu arduradunen funtzionamendua izan da, prestatzea. Zeregin hori oraindik erronka handia da herritarren beharren kudeaketarako.

Laneko osasunaren esparruan, gaixotasun profesional horren arazo batzuk aztertzeko aukera izan dugu -ASVIAMIEren kexa baten bidez-. Osasuna eta Gizarte Segurantza 2010-2014 Estrategiak arazo horri heltzeko beharra jasotzen du. Hala, lan egin ondoko zainketarako datu fidagarriak ez daudenez, planteatzen duen helburuen artean egungo programa hobetzea dago. Bestalde, zaintzarekin ere lotuta, **OSALAN**ek hainbat urrats eman dituela erreparatu dugu, produktu horren eraginpean dauden langileen erregistro ofizial bat sortzeko.



**2010. urte horretan eskumenak bere gain hartu ondoren, egoera horretan, kexen iturri nagusia zerbitzu arduradunen funtzionamendua izan da**

eta horietako asko eskualdatutako eskumenez baliatzeko bere gain hartu ziren zerbitzuak aplikatzeko moduan oraindik uztartu gabe dauden kudeaketengatik.

2011. urtean, **4/2011 Legeak, azaroaren 24koak**, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko legea aldatzen duenak, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta etxebizitzako gastuetarako prestaziorako sarbiderako aurreikusten zituen funtzioak hartu zituen bere gain Lanbidek. Lege horrek bereziki nabarmentzen ditu prestakuntza eta laneratzea

ASVIAMIEk planteatu digun alderdi garrantzitsu batek, hain zuzen, zerikusia du lan ondoko osasunaren zaintzarekin, zehazki, zaintza horren hautagaiak izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko informazioa izateko gogoarekin.

